

# AIARALDEA *hemen*



XABIER BERGANZA URRUELA:  
“Jendeak ondo pasatzea eta jaiak errespetuz gozatzea; hori da soinu sistemaren helburua” 18-21 or.

ALTZARRATE KE:  
“Emakumeen futbolak ikusgarritasuna behar du gazteak erakartzeko” 24-25 or.



“Gerrako presoak umiliatu eta zanpatu nahi izan zituzten esklabo lanen bidez”

AIARALDEA 6  
**Palestinaren kontrako sarraskia salatzen kalera atera dira herritarrak**  
Gernika-Palestina ekimenak deituta mobilizazioak egin dituzte eskualdean

LAUDIO 11  
**Glavistaren aferan zuzenean esku hartzea eskatu diote Jaurlaritzari**  
Sindikatuak Eusko Legebiltzarrean eta Arabako Batzar Nagusietan izan ziren

AIARA 8  
**Amurriotik administrazio batzarrera doan errepidea konpondu du Etxegoienek**  
Amurrioko Udalak epaiketa bidez bereganatu zuen errepide zatia mende hasieran

KULTURA 22  
**Lekeitioko Euskal Zine Bilerako film onenaren saria irabazi du Zubietek**  
Zinema Ikusezinaren Jaialdian ere aipamena lortu du *Agur Artzai* filmak

ARTZINIEGA 9  
**Datorren urteko aurrekontuak osatzeari ekin dio Udalak**  
Bilera irekia egin zuten Udaletxean, eta galdetegia ere jarri dute bizilagunen eskura

KIROLA 26-27  
**Mila mendizale Gorobel Ibilaldiaren deiadarraren atzetik**  
Mendiko Lagunak taldeak antolatutako ibilaldiak irudi ikusgarriak utzi ditu

**ENKARKI**  
ALQUILAMOS SOLUCIONES VENDEMOS SERVICIO

**ANOVA**  
DISTRIBUIDOR OFICIAL

**ANOVA MG2600 MOTOZERRA**

Zilindro-bolumena: 25,4 CC  
Potentzia: 1,2 HP / 0,9 KW  
Ezpada: 10" - 25 cm - 3/8" BP Oregon  
Katea: 40E - .050" - 1,3 mm Oregon  
Karburagailu mota: Walbro  
Pisua: 3,2 kg

**224€**  
BEZ barne

Arza II industrialdea, LAUDIO · 946 43 00 42  
enkarki@enkarki.net · www.enkarki.net

# elkarrizketa

**“Kereila honekin gure seniden duintasuna berreskuratu nahi dugu”**

BEHARTUTAKO LANAK EGITEN, 1940AN KONTZENTRAZIO-ESPARRU BATEAN EGON ZEN PRESO ENRIQUE BOVEDA, **ISABEL BOVEDA**ren AITA. ORAIN, SENIDE TALDE BATEK FRANKISMOKO LAN-ESKLABOAREN AURKAKO LEHENENGO KEREILA KOLEKTIBOA AURKEZTU DU.



Testua eta argazkiak  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

## Zer lotura daukazu zuk kereila kolektibo honekin?

Nire aita Igariko kontzentrazio-esparruan egon zen. Igari, Bidankotze eta Erronkari lotzen zituen errepidea bertako presoek egin zuten. Nik azpimarratu nahi dudana gauza bat da hori guztia Guda Zibilaren ostean gertatu zela. Gerra 1939an bukatu zen eta nire aita 1940an sartu zuten Erronkarin preso. Datu garrantzitsuak da hori niretzat, argi uzten duelako bertan gertatutakoa mendeku hutsa izan zela. Faxistek irabazi zuten gerra, baina badirudi hori ez zela nahikoa izan haientzat. Umiliatu, sometitu eta zanpatu nahi zituzten aurkariak.

Aita urtebete egon zen bertan gutxi gora behera. Jarraian Burgosera bidali zuten soldaduzka egitera. Zazpi urte eman zituen etxetik kanpo.

## Zein da zure aitaren historia?

Gutxi dakigu. Gauza asko ez zizkigun kontatu, nik uste ez zuela gogoko horren inguruan hitz egitea. Guk dakiguna da gerra piztu zenean boluntario aurkeztu zuela bere burua. Aita Santurtzikoa zen. Oso komu-

nista zen konbikzioz, baina guk uste dugu ez zela alderdiko militantea izan. Alderdi komunistarekin aukera izan zuen, antza, gudan non eta nola parte hartu nahi zuen erabakitzeke. Tankeekin aritzea aukeratu zuen. Kamioi gidaria zen, gure aitona bezalaxe. Ezkerraldean kamioi gidari bakanetakoak ziren eta eskarmentu horrekin abiatu zen tankeak gidatze-  
ra.

Hogei urterekin atera zen etxetik. Badakigu Espainiako estatuko hainbat tokitan egon zela borrokan lau urtez. Extremaduran badirudi denbora luze eman zuela, Madrilen ere egon zen. Hutsune asko falta zaizkigu gerrako bere ibilbidearen inguruan.

Azkenean, Santoñatik itsasontzi bat hartuta Frantziara igaro zen. Frantziatik, ordea, Kataluniako Portbou herritik bueltatu zen Espainiar estatura. Alacanterraino jaitsi zen eta bertan hartu zuten preso.

## Gerra bukatu ostean izan zen hori?

Suposatzen dugu baietz, baina ez dugu batere argi. Gerra 1939an bukatu zen, eta dokumentuen arabera 1940an sartu zuten Erronkarin preso. Zer gertatu zen urte horietan guztietan? Pena bat da baina ez dauka gu batere argi, aitak ez zigun inoiz kontatu.

Gauza gutxi kontatzen zituen. Berarentzat errazena ziren kontuetaz aritzen zen soilik. Iloba batek galde-tu omen zion behin ea jende asko hil zuen, eta horretaz hitz egin nahi ez zuela erantzun zion. Oroitzapen mingarri asko pilatuko zituen Gerra Zibilean zehar.

## Zer leporatu zioten zure aitari?

Jaso zuen akusazioa *desafecto al régimen* izan zen. Horrela kalifikatzen zuten edozer gauza, edozein disidentzia edo frankisten aurkako edozein jarrera. Akusazio horrekin bidali zuten lan esklaboa burutzera.

## Gudako kontuetaz ez bezala, Erronkarin eta Igarin igarotakoaz asko hitz egin zenuten etxean aitarekin.

Erronkariko garaiak gehiago hitz egiten zuen bai. Preso egon zen urtebetez, baina nolabait zorte izan zuen beste presoekin alderatuta. Errepideko lanak burutzeko kamioiak gidatzeko karneta zuten gidariak behar zituzten, eta aita zen horietako bat. Gauzak horrela, kamioi bat eman zioten materialen garraioaz arduratzeko, presoaldi “erosoagoa” izan zuen esku-lanetan aritu ziren presoak baino.

Aitak goi-kargudun batzuen etxean egiten zuen lo,

## elkarrizketa

berak *la plana mayor* deitzen zituen. Etxe hori Erronkarin dago oraindik, bisitatzera joan izan gara inoiz. Gainerako preso gehienak kanpin-denda eta barra-koietan bizi ziren, baldintza negargarrietan. Erronkarin neguan sekulako hotza egiten du, eta garai hartan are gehiago. Aitak kontatzen zigunaren arabera ibaiak izoztu egiten ziren eta karroak gainetik pasatzen ziren. Gaur egun ezin dugu hori imajinatu ere egin.

**Zenbat pertsona zeuden kontzentrazio-esparruan preso?**

2.300 eta 2.400 preso artean zeuden bertan. Jende asko da hori, oso-oso baldintza gogorretan gainera. Aitak kontatutakoaren arabera, lan esklabo oso gogorra egiteaz gain, tratua ere oso bortitza zen. Gaixotasunak, jipoiak, erailketak... eguneroko kontua omen ziren.

Aita bestelako baldintza batzuetan egon zen arren, berak ere arriskua bizi izan zuela kontatu zigun. Kamioiarekin errepide arriskutsu eta izoztuetatik ibili behar izan zen. Kamioia, gainera, eskolta batekin gidatu behar zuen une oro. Askotan mozkortzen zen bere zaindaria eta behin baino gehiagotan jazo zituen mehatxuak pistola batekin.

**Bertan preso egon ziren pertsonen senideek harremana duzue gaia lantzen duen elkarte memorialista batekin.**

Hgoei urte baino gehiago daramatzagu Igari inguruan

**“2.300 eta 2.400 preso artean zeuden Iragkio kontzentrazio esparruan, oso baldintza makurretan”**

Memoriaren Bideak antolatutako oroimen ekitaldira joaten. Monolito bat dago errepide bazterrean, eta, urtero bertan elkartzen gara errepresaliatuen senideak. Horrela ezagutu genuen elkarteak.

Estatu osoko senideak elkartzen gara gaur egun ere. Duela bost urte hil zen bertan egondako azken errepresaliatua, Ortiz Alfau bilbotarra. Jaenetik, Asturiasetik, Frantziatik... ere etortzen dira omenaldira.

Niretzat oso ekitaldi garrantzitsua da, eta oso esker-tuta nago urte hautean guztietan elkarteko kideek egindako lanari. Bizirik mantendu dute bertako memoria. Fernando Mendiolak liburu bat idatzi zuen kontzentrazio-esparruko gertakarien inguruan. Gaur egun ere ikertzen jarraitzen dute, gauza asko daude oraindik argitara atera beharrekoak.

Leku gehiagotan ere egon dira horrelako espetxeak. Hemendik oso gertu, Urduñan esaterako. Zer gutxi dakigun horren inguruan. Espero dugu guk kereila honekin abiatutako bideak balio izatea bestelako sarraskiak argitzeko.

**Zuena da frankismo garaiko lan-esklaboaren aurka aurkeztutako lehenengo kereila kolektiboa. Nolakoa izan da prozesua? Zer lanketa egin duzue?**

Jacinto Lara abokatu madrildarrak, Memoriaren Bideak elkartearekin eta Ceaqua Argentinako Kereila Babesteko Estatu Koordinakundearekin batera prestatu du kereila aurkezteko dokumentazio guztia. Oso ondo landuta zuten guztia. Iraila hasieran eman ziguten horren berri. Senideok hainbat dokumentu



Memoriaren Bideak elkarteak batzen ditu Iragkio kontzentrazio-esparruko senideak; haiena da frankismo garaiko lan esklaboagaitik jarritako lehenengo kereila kolektiboa. FOKU

# elkarrizketa

aurkeztu behar izan ditugu ere. Guk Guadalajarako artxibo militarera jo behar izan dugu, aitaren erre- gistro militarra eskuratzeko. Hiru astetan jaso genuen dokumentazioa. Horrekin eta aitarengandik jasotako testigantzekin prestatu dute guztia.

Guretzako oso kontu erraza izan da. Eskerrak emate besterik ez dugu kereila antolatu duten guztiei.

**“Aitak ezer gutxi kontatu zigun guri gerra garaiaz; pena da gehiago ez jakitea”**

**Guadalajarako artxibo militarera jo zenutela aipatu duzu. Zer atera zenuten bertatik?**

Kontzentrazio-esparruetan esklabo lanetan ari ziren presoek erregistroa militarren esku zegoen. Langile soldadu dizpilina batailoak deitzen zieten esklabo taldeei. Erregistro militarrean jasota dago aitak ejer- zitoaren eskuetan igarotako denbora. Horrela jakin genuen 1940ko uztailaren 2an Mirandan izan zutela, eta bertatik Erronkarira bidali zutela 1940ko uztaila- ren 17an. Guk ez genekien horren inguruko ezer.

Beste sorpresa bat ere aurkitu dugu Guadalajaratik ateratako dokumentuetan. Erronkaritik Burgosera bidali zuten 1941ean. Artxibo militarrean jasotzen da ET-59510 matrikuladun kamioi batean atera zela Erronkariko kontzentrazio-esparrutik. Aitaren bi argazki ditugu bertan igarotako garaikoak, horietako batean berak gidatzen zuen kamioiaren ondoan agertzen da, Burgosera eraman zuen kamioi bera hain zuzen ere. Aitak fordito deitzen zion kariñoz.

**Hamabi familiak aurkeztu duzue kereila kolekti- bo hau, baina Erronkarin egondako presoak bi milatik gora izan ziren.**

Espainiako estatuko toki askotako presoak batu zituzten Erronkarin. Gure aitak guda garaiko gauza gutxi kontatzen zizkigun modu berean, ezajintasun handia egongo da kontzentrazio-esparruko presoek senideen artean ere. Hain zuzen ere, hori da kerei- laren helburuetako bat, seinde gehiago identifikatzea. Orain mugitzen hasi garela jaso ditugu deiak, Astu- riasetik esaterako. Bertan egondako preso guztiak hilda daude honezkerok. Familiek jakingo dute anek- dotaren bat edo haien senideren bat preso egon zela, baina orokorrean ezer gutxi jakingo dute garia hartan jazotakoaz. Aitak, esan bezala, ezer gutxi kontatzen zigun guri, ziurrenik beldurratetik. Hil aurretik bakarrik aitortu zigun komisario politikoa izan zela errepublikarren aldean. Komisario politikoa izateak fusilamendua zekarren zuzenean. Azken unera arte izan zuen hori aitortzearen beldurra. Pena sentitzen dut gehiago ez jakiteaz, baina memoria hori berres- kuratzeko helburuarekin ere egin dugu lana. Espero dugu hau zabaltzea, eta gure senitartekoen duinta-



Lerro hauen gainean, Enrique Boveda Ortiz de Zarate Erronkarin igarotako garaian ateratako argazki batean. Eskumako argazkietan, Enrique Bovedaren

**“Berriro ez errepikatzeko berme bakarra gertatutakoa ezagutzea da”**

suna berreskuratzea. Ez ziren gaizkileak, ez ziren maltzurak. Duintasun osoz herriaren alde borroka- tu zuten pertsonak izan ziren.


**Bide judizialari dagokionez, zein ibilbide aurrei- kusten diozue kereilari?**

Oraindik ez dakigu Agoitzeko epaitegiak kereila onartu duen. Gero ikusiko dugu noraino iristen den. Momentuz mozioak aurkeztuko ditugu udal desber- dinetan; Laudioko Udalean azaroko osoko bilkuran eztabaidatuko da. Horren helburua babesak biltzea da. Kereila Argentinara iritsiko da, baina auskalo zer ateratzen den hortik.

Guk aitortza besterik ez dugu eskatzen. Nazioarte- ko legediak Erronkarin jazotakoak gizateriaren aur- kako krimen bezala kalifikatzen ditu. Hori da eskatzen duguna; justizia, erreparazioa eta egia.

**Ez da lehenengo aldia erregimen frankistak egin- dako sarraskiak Argentinako epaitegitara iristen direla. Ez da bitxia justizia hain urruti bilatu behar izana?**

## elkarrizketa



En datuak jasotzen dituen artxibo militarra. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)


Bitxia da oso. Baina argi dago hemen ez dagoela justizia lortzerik. Demokrazian bizi garela diote, baina niri oraindik kostatzen zait hori sinestea.

**Zergatik da inportantea Erronkarin gertatutakoa argitara ateratzea, eta bertan preso egondakoen memoria aldarrikatzea?**

Lehenik eta behin haiekiko behar bat dugula uste dut; ahaztuta egon dira eta unea da errealitate hori aitortzeko. Haien duintasuna aldarrikatzeko ere. Gaizkile bezala izendatuak izan ziren, baina ez ziren gaizkileak, duintasunez gerran borrokatu zuten, eta gerra bukatuta sartu zituzten preso, mendeku hutsa.

Azkenik, uste dut berebizikoa dela azalaraztea hemen zer gertatu zen Guda Zibilean eta Frankismoan. Oso erraz hitz egiten da Hitlerrek egindako sarraskietaz.

Hemen badirudi ez dela ezer gertatu. Oso garrantzitsua da memoria berreskuratzea, batez ere belaualdi gazteentzako; gure historia da. Berriro errepikatu ez dadin ezinbestekoa da gertatutakoa ezagutaraztea, hori da berme bakarra.



# herriz herri

Aiaraldea

## Palestinaren kontrako sarraskia salatzeke kalera atera dira eskualdeko herritarrak



Gernika-Palestina ekimenak dozenaka heritar elkartu ditu Aiaraldeko plazetan. [Aiaraldea.eus](#)

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Gernika-Palestina herri ekimenak deituta mobilizazioak egin zituzten astearte arratsaldean Euskal Herriko ehun udalerritan. Deialdi herritarrak oihartzuna izan zuen Aiaraldean ere, eta dozenaka izan ziren palestinarren aurka Israelen gauzatzen sarraskia salatzeke kalera atera ziren herritarrak.

Hain zuzen ere, hilabete beten azaroaren 7an Gazako miliziek Israelen eraso egin eta Tel Avivek azken urteetako oldarrik bortitzena abiatu zuenetik Gazako zerrendaren aurka. Azken datuen arabera, 10.000 bai-

**Azken hilabetean Israelen 10.000 herritar baino gehiago hil ditu Gazako zerrendan, horien artean 4.000 haur**

no gehiago dira hildako palestinarrak, horien artean 4.000 haur baino gehiago. Honezkeroko hogeita hamar egun baino gehiagoz luzatu den setioa ezarri dio Israelen Gazako zerrendari: elikagairik, urik eta erregairik gabe geratzen ari dira bertako herritarrak eta Gaza eta Egipto arteko Rafahko pasabidetik sartzen ari den laguntza humanitarioa oso urria da herritarrek biziraun ahalizateko.

**Ikastetxeetan mobilizazioak**

Plazetan bakarrik ez, Aiaraldeko ikastetxeetan ere egin zituzten mobilizazioak azaroaren 7an. Laudio Ikastolako langileek elkartasun argazkia atera zuten Palestinako banderak eskutan.

## Azaroaren 30eko grebari begirako Herri akordioa plazaratu du Aiaraldeko Mugimendu Feministak



Agerraldia egin zuten hainbat eragile eta mugimendutako kidek. [Aiaraldea.eus](#)

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Erritmoa azkartzeari ekin dio Aiaraldeko Mugimendu Feministak azaroaren 30eko Hego Euskal Herri osoan deitua dagoen greba orokor feministari begira. Horri lotuta, urrats esanguratsua eman zuen igandean, eskualdeko agerraldia egin baitzuen Arzniegan.

Hainbat eragile, sektore eta mugimenduetako dozenaka kide bildu ziren Toñin Luengas frontoian. Greba egiteko arrazoiak aletu zituzten, irakurketa zabal bat plazaratuta. "Ez da unean uneko zerbait, zaintza bizitzako une eta eremu guztietan beharrezkoa da", nabarmendu zuten, "gure gorputzen, komunitateen eta lurra-iraunkortasunerako ezinbestekoa da; hau da, bizitza, ongizatea eta osasuna iraunarazteko eta kudeatzeko beharrezkoa".

Baina Euskal Herrian zainzarako zerbitzuak "gero eta pribatizatuago" daudela salatu zuten jarraian, "enpresa lagunen eskuetan jartzeko eta horietatik milioi askotako etekinak ateratzeko, zaintza kalitatearen eta langileen lan-baldintzen kontura".

Horretarako "familia heteropatriarkala erdigunean" jartzen dela nabarmendu zuten eta, ondorioz, zaintza lanak emakumeen gain geratzen direla, "eta sarritan emakume migratu arrazializatuen gain". Horregatik, Aiaraldeko Mugimendu Feministako ki-

deek uste dute egungo sistema "arrazista" ere badela, "kapitalista eta heteropatriarkala" izateaz gain.

**Herri akordioa**

Aipatutako guztiaren aurrean, "zaintzarako eskubide kolektiboaren aldeko apustua" aldarrikatu zuten feministek, eta horri begirako tresna moduan jarri dute grebarekin sustatu nahi den Herri akordioa, "mugimendu sozial eta sindikalekin batera adostutakoa".

Akordio horretan momentuz bildu dituzten aldarriak ere aletu zituzten igandeko agerraldian. Bi multzotan banatu zituzten exigentziak, epe laburrera begirakoa alde batetik, epe luzera begirakoa bestetik. Guztira, 23 eskakizun zehatz plazaratu dituzte, hainbat gairi lotutakoak: erroldatzeko eskubidea, arrazakeria instituzionala, gizonen egin beharrekiko interpellazioa, agroekologia, etxebizitza, zaintzaileentzako laguntza sareak, etxeko langileen lan baldintzak, zaintza sistema publikoa indartzea eta abar luze bat. Bukatzeko zaintzarekiko "konpromisoak nahiz erantzukizunak" hartzeko beharra jarri zuten mahai gainean igandeko agerraldian, "lanaren banaketa sexual eta arrazista" desegiteko. Horri begirako urrats moduan kokatu zuten azaroaren 30eko greba feminista orokorra, "denon bizitza erdigunean jartzeko prozesua" izango dela nabarmenduta.

## Aiaraldea

## Aldundiak dirulaguntza eskainiko du igeriketa klaseen garraioa ordaintzeko



Irailean mobilizazioak egin zituen hezkuntza komunitateak. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Antolamenduko diputatu Anartz Gorratxategik. Izan ere, sail horren mende egongo dira laguntzak datorren urtean.

Hamaika buruhauste sortu ditu eskola garraioak ikasturtearen hasieran landa-eremuan. Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren eta enpresen arteko adostasun faltak eragin zuen hainbat familia zerbitzurik gabe geratzea irailean. Arazo hori konpondu ostean, ordea, igeriketa klaseena etorri zen landa-eremuko ikastetxe publikoetara, Arabako Foru Aldundiak adierazi baitzuen ez zuela garraio hori bere gain hartuko.

Gauzak horrela, Arteko Gure Ama Ikastetxeko eta Etxaurren Ikastolako gazteek eskola ordutegitik kanpo jo behar zuten klase horiek hartzera, Aldundiak azaldu baitzuen eskola ordutegi barruko jarduera guztiak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren esku-menak zirela.

### Dirulaguntza

Dena den, pasa den astean Arabako Foru Aldundiak jakinarazi zuen dirulaguntza sortuko duela eskolaz kanpoko jarduerak finantzatzeko. Horretarako, laguntza-lerro berria diseinatu dute Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendu Sailak eta Kultura eta Kirol Sailak.

"Jakin badakigunez beharrezkoa dela inguruko beste udalerririk batzuetara joatea kirol-jarduerak egin ahal izateko, betiere gure haurrek eta gazteek kirola egiteko duten eskubidea gailenduz, beren bizitzaren eta hezkuntzaren garapeneren funtsezko zati gisa, Guraso Elkarteek laguntzeko lerro berri hau sortzearen alde egin dugu, jakin baitakigu horrek eskola-orduetan eskola-kirola egitea erraztuko diela Arabako ikasleei", adierazi du Lurralde Oreka eta Lurralde

### Albiste ona

Aiaraldea Komunikabideak eskualdeko Guraso Elkarte kalte-tuenarekin jarri da harremanetan, Artziniegakoarekin, alegia.

Artziniegako gurasoek eskola ordutegitik kanpo egin behar zuten igeriketa ikastaroa, baina Arabako Foru Aldundiak ahalbidetuko duenez, eskola ordutegi barruan izango da azkenean.

Horrek aldaketak ekarriko ditu egungo planteamenduan, ostegun arratsaldetan eskatu baitzuten Amurrioko Kiroldegiko igerilekua. Dena den, familiek positiboki baloratu dute neurria.

Berez, konpondu gabeko hainbat arazo ekidingo dituzte ikastetxearekin: ez dute begiralerik kontratatu beharko, adibidez. Gurasoek azaldu dute dirulaguntzak bestelako prozedura ezarri duela —ikasleen aitek eta amek eta ikastetxeek kontratatu beharko dute autobusa eta gero finantzazioa eskatu—.

## Asteburueta gaueko tren zerbitzua berreskuratzeko sinadura bilketa abiatu dute

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Renfek Bilboko aldirietako zerbitzuak eten ditu asteburueta gauez —Gau Jaiak deiturikoak— eta egun 23:30ean amaitzen dira aukerak ostiral eta larunbategi, 04:05ean berriro tren bat eskura izan arte.

Hori dela eta, herritar batek sinadura bilketa hasi du hemen. Zehazki, garraio publikoaren erabiltzaile horrek exijitzen du zerbitzua pandemia baino lehen zegoena izatera itzultzea, eta asteburueta gaueko trenak egotea Bilboko inguruetako udalerrietan.

Sustatzaileak argudiatu

du trenea aukera segurua, ekologikoa eta merkeagoa dela, ibilgailu pribatuekin edota taxiekin alderatuta.

Gainera, ekimenaren bultzatzaileak adierazi du zerbitzu horren gabeziak aisialdirako aukerak murrizten dizkiela hainbat herri-tarri.

## Ez zara argitzen gaur egungo sare sozialekin?

Gure seme-alabei mugikorrean agertu zaizunaren inguruan galdetu behar diezu uneoro?

Lasai! Hemen daude...

**GURASOENTZAKO MULTIMEDIA ESKOLAK!**  
(Beno, gurasoentzako eta nahi duen ororentzako)



**Azaroaren 20an,**  
Zer dira Instagram eta Tik Tok eta nola funtzionatzen dute?

**Azaroaren 21ean,**  
Zer da Twitch eta nola funtzionatzen du?

**Azaroaren 23an,**  
Nola egin argazki hobeak?



**Non? Faktorian Ordutegia? 17:30-18:30**

**Sarrera librea eta doakoa.**

**Adinekoa bazara eta etxea partekatu nahi baduzu Eusko Jaurlaritzaren programarekin:**

Kontaktatu  
**623 06 46 84**



# herriz herri

## Aiara

### Amurriotik administrazio batzarrera doan errepide bat konpondu du Etxegoienek



Etxegoienen konpondutako errepidea. J.A.

Testua  
Aitor Aspuru Saez

Udan bukatu zituzten Etxegoien eta Amurrio arteko errepidea konpontzeko obrak. 177.880,62 euroko inbertsioa ekarri dute lanek eta 163.738,33 euroekin finantzatu du Arabako Foru Aldundiak. Gainerako gastua Etxegoien eta Amurrio artean banatu dute.

Bidearen 850 metro berritu dituzte orotara, horietako 168 metro Etxegoingoak dira eta gainerakoak Amurriokoak.

#### Etxegoienek kudeatuta

Berez, lanak gauzatzea ingeniaritza juridiko eta ekonomikoaren ondorioa izan da. Izan ere, konpondutako azalera gehiena Amurriokoa da, baina Etxegoingo Administrazio Batzarraren bidez egin da. Kontzejuak lortu du dirua eta Arabako Foru Aldundiarekin kudeatu du.

"Lau urte behar izan ditugu hau burutzeko", azaldu dio Javi Aspuru Etxegoingo herritarrak Aiara Komunikabideari.

#### Amurriok Etxegoieni "kendua"

Etxegoienek obra hau bere gain hartu izanak bi azalpen ditu. Alde batetik, aiarrak erabiltzen dute,

**Errepide zati hori Etxegoienena izan zen XXI. mendera arte, baina Amurrioko Udalak epaiketa bidez bereganatu zuen**

ez baitago beste modurik autoz ateratzeko administrazio batzarretik.

Bestetik, iraganean errepide hori Etxegoienena zen. Horrela adierazi du Aspuru: "Duela 25 urte beste konponketa bat egin zen eta guk egin genuen. Ordea, XXI. mendeko lehen hamarkadan Amurrioko Udalak proiektua garatu zuen eraztun berde handia egiteko eta epaiketa bidez kendu zigun errepidea".

#### Prozedura komplexua

Gauzak horrela, eta errepidearen zati gehiena berea ez denez, azpiegitura hori lagatzea eskatu zion Etxegoienek Amurrioko Udalari. Lagapen hitzarmena 17 urtekoa da, gutxienez 15 urtekoa izatea exijitzen baitu Foru planak.

Urrats hori eginda, Etxegoienek dirulaguntza eskatu zuen 2022-2023 Foru Planean eta Arabako Foru Aldundiak baimendu zuen finantziarioa.

"Lan nekeza izan da. Hamabi aldiz bildu behar izan dugu kontzejuak eta lau urtez luzatu da prozesua, baina aintzat hartu behar da Foru Plana beharrezkoa zela finantzatzeko eta Amurriok bestelako premiak eta lehentasunak dituela", argitu du Aspuru.

## Okondo

### Arabako Foru Aldundiak Ondare Higiezin Zergaren behin-behineko eguneraketa onartu du

Testua  
Aitor Aspuru Saez

Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak pasaden asteko asteartean onartu zuen Ondare Higiezin Zerga behin-behinean eguneratzea. Horrek eragina izango du lurzoruen eta hiri higiezin eta eraikinen balorazioan. Izan ere, 2024an Okondon erroldatutako lurzoru eta eraikinek 58 milioi euro inguruko balorea izango dute, hau da, aurtun bai-

no 4.400.000 euro gehiago. Foru arauak ezartzen du zortzi urtean behin berrikusi behar direla katastroko baloreak eta erabaki honekin Arabako Foru Aldundiak ekin dio egiteari.

Okondoko Udalak uste du Ondare Higiezin Zergaren igoera ez dela nabaritu gehiegi eta, euren aburuz, %0,3an garestituko da. Halaber, Jon Escuza alkateak gogoratu du hau ez dela izan tokiko erakundeak hartutako neurria, Arabako Foru Aldundiarena baizik.

## Amurrio

### Gizarte Segurantzaren Amurrioko bulegoa irekita berriz, hiru urteren ostean



Landako kalean dago bulegoa, eta hiru urte eman ditu itxita. EH Bildu Amurrio

Testua  
Txabi Alvarado Bañares

Pertsiana igo du Espainiako Gizarte Segurantzaren Amurrioko bulegoak, hiru urte baino gehiago itxita eman ostean.

Iragan astean iragarri zuen Denis Itxasok bulego hori eta Guardiako berririkiko zizutela. Espainiako Gobernuko ordezkariak barkamenak eskatu zituen azpiegitura itxita egoteak eragin dituen dituen "arazo burokratikoengatik".

Bulegoa lanegunetan egongo da zabalik 9:00etatik 14:00etara bitartean. Aldez aurretiko hitzordua har-

tu beharko dute herritarrek nahitaez, Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoren bidez.

#### Hiru urte itxita

2020ko otsailetik daramate Amurrioko zein Guardiako bulegoek itxita; hau da, pandemia hasi baino lehenagotik. Bi bulegoetako langileek beste plaza batzuetan lan egiteko hautua hartu zuten, eta ez zen "ordezko egokirik" topatu. Horregatik egon dira itxita, orain arte.

EH Bilduk mozioa aurkeztu zuen Amurrioko Udalan 2021ean, bulegoaren berririkitzea eskatzeko.



## Artziniega

## Datorren urteko aurrekontuak osatzeari ekin dio Udalak, herritarren parte hartzearekin



Kultur Etxearen barrualdeko obra amaitzea da datorren urterako aurreikusi duten proiektuetako bat. **Artziniegako Udala**

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

2024ko aurrekontuak osatzeari ekin dio Artziniegako Udalak, eta herritarren parte hartzea sustatu nahi du horretarako. Astearte arratsaldean lehenengo bilera irekia egin zuten gaia lantzeko. Datorren urterako aurreikusitako ekimenak aurkeztu dituzte bertan, bizilagunen inpresio eta ekarpenak jasotzeko.

Honako ekimen hauen gaineko iritzia eskatu die Udalak herritarrei, besteak beste: Kultur Etxearen barrualdea amaitu eta egokitu; bideetako sasi-garbiketen maiztasuna handitzea; bide publikoak irekitzen jarraitzea; Arteko landako azken "etxola" askaldegia estali gisa prestatzea; Adinekoentzako Eguneko Arreta Zentro berria (CRAD) gauzatzeko hastea; argi berriak jarri

### Bilera irekia egin zuten asteartean Udaletxean, eta galdetegi bat ere jarri dute bizilagunen eskura

behar diren lekuetan jartzea; bideak hobetzen eta konponetzen jarraitzea; usoak harra-patzeko plana egitea; udalerrian zuntz-zementua egoteari buruzko inbentarioa egitea; udalerriko energia eta klima plana egitea; eta Axpe-Hormaza espaloiak konpontzea.

Dena den, bilerara bertaraterik izan ez duten herritarrek ere aukera izango dute euren iritzia plazaratzeko, Internet bidezko galdetegiak jarri baitu tokiko erakundeak bizilagun guztien eskura. Hemen ikusi eta bete daiteke formularioa. Paperean betetzeko aukera ere egongo da. Horretarako, galdetegiaren kopia fisikoak jarri dituzte Udaletxean zein udal liburutegian, bertan bete eta uzteko. Edozein zalantza izanez gero udaletxearekin jarri daiteke harremanetan.

## Ekitaldi xume batekin gogoratu dute Teo Zelenyi



Jendetza elkartu zen Toñin Luengas frontoian. **Aiaraldea.eus**

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Teo Zelenyi gaztearen omenezko ekitaldia egin zuten ostiralean. Hamaika urteko gaztea bat-batean zendu zen, herriko Gau Beltzaren ospakizunetan murgilduta zegoela. Samina eragin du Teoren heriotzak herrian. Udalak hiru dolu egun deitu ditu aza-

roaren 2tik hasita, eta haurrentzako jarduera guztiak bertan behera utzi dituzte. Elkarretaratze isil batekin omendu zuten Teo Zelenyiaren memoria. Jendetza elkartu zen Toñin Luengas frontoian, Artziniegako Barratxi Guraso Elkar-teak Teoren omenez sorturiko irudiaren inguruan. Txalo zaparrada luze batekin eman diote amaiera bost minutuko isiluneari.

## HOTEL ORDUÑA PLAZA

\*\*\*\*  
Balneario

### ERRESERBATU ZURE GABONETAKO ENPRESA-BAZKARIA

#### I MENUA

##### JANAURREKOA

Suflatua zigalaxoen suquetarekin

##### HASIERAKO PLATERAK

Leongo zezina, errukula & parmesanoa  
Onddoak, arrautza & patata parmentierra

##### PLATER NAGUSIAK

Txangurrus betetako legatza  
Txahal-masail iberikoa & curry gorria

##### POSTREA

Txonde gaztaia tarta



#### II MENUA

##### JANAURREKOA

Suflatua zigalaxoen suquetarekin

##### HASIERAKO PLATERAK

Foie krematsua, pinaziak & okarana  
Pikillo moussea & bakailao-puskak  
Gratinatutako txanguru oskola

##### PLATER NAGUSIAK

Glasatutako txahal-masaila, perretxikoak & semola

##### POSTREA

Mango krematsua & fruitu tropikalen coulisa



49€ BEZa barne

Menuek plater guztiak aintzat hartzen dituzte.

Errioxako J.I. ardo beltz ondua, Rueda J.I. ardo zuria, Bizkaiko txakolina J.I., ura, garagardoa, kafea eta infusioa barne.

Foru plaza, URDUÑA · Tel. 945 56 90 38  
info@hotelordunaplaza.com · @hotelordunaplaza

**YANDIOLA**  
HORTZ KLINIKA LAUDIO

Mediku zentroa RPS: 314/18  
Karmen Kalea 13, behe  
LAUDIO (Araba)  
946 72 31 00  
www.yandioladental.com

75 urte zurekin



PADI PROGRAMA



INPLANTEAK



3D ERRADIOGRAFIAK

# herriz herri

## Laudio

Herritarren parte-hartze eredu berria inplementatzeari ekingo dio Udalak, eta *Zu zara Laudio* lemapean egingo diren auzo-batzarrekin abiatuko du prozesua.

## Parte-hartze eredu berria jarriko du abian Laudioko Udalak, auzoen ahotsa erdigunean jarritz



Zu zara Laudio lemapean, parte-hartze dinamikak irudi-marka propioa izango du. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua **Almar Gutierrez Bidarte**

*Zu zara Laudio* lemapean parte-hartze eredu berri bat jarriko du abian Laudioko Udalak. Horretarako, 2022ko maiatzetik indarrean dauden Gardentasunaren eta Herritarren Partaidetzaren araudian jasotakoak inplementatu nahi dituzte. "Udalak partaidetza-dinamikak birformulatu ditu, koherentzia sekuentzial, sakontasun eta informazio handiagoa eta herritarren ahalduntzea lortzeko, araudiak berak planteatzen duen bezala", azaldu dute ekimen berria aurkezteko udal gobernuak kideek egindako prentsa-agerraldian. Azaroan eta abenduan egingo dituzten auzo-batzarretan emango dituzten prozesu horren lehenengo urratsak.

Udalaren ohiko komunikazio kanaleetatik auzo-batzarren deialdiak luzatu aurretik, eta "herritarrek jasotzen duten informazioa hobetzeko" asmoz, azken urteetan eginda-

ko batzarren akta guztien laburpena prestatzen ari dira gobernu taldean. Informazio hori guztia Laudioko auzo guztietako bizilagunei helaraziko zaie. Nagore Gomara zinegotziak azaldutakoaren arabera, "planteatutako proposamen eta kezka guztiekin, batzarretara doazen pertsonen informazio zehatza eta eguneratua izan dezaten".

"Hau lehen fase bat baino ez da, baina prozesu horien metodologian sakontzen joango gara, parte-hartzea zabaltzeko baldintza garrantzitsua delako. Nolanahi ere, 2024ko esperientzia oinarrituta, berrikuntza horiek guztiak berrikusi eta hobetu egingo dira 2025erako", azpimarratu du Gomarak.

### Auzo kontseiluak

Auzo-kontseiluen sorrera izango da batzarretan landuko den berritasun eta gai nagusietako bat. Udalerriko auzo guztietan eratu nahi dituzte gisa honetako kontseiluak, eta batza-

rretan landutako gaiak segida ematea izango da haien jardun nagusia.

Organo berri horietatik bi ordezkari izendatuko dira auzo-batzarretan Jarraipen Batzorderako. Gainera, kontseilu bakoitzeko ordezkari batek Toki Kontseiluan parte hartuko du; udalerriko garapen estrategikoaren, ekonomikoaren, sozialaren, kulturalaren eta jasangarriaren inguruan eztabaidatzeko eta parte-hartze organo gorena. "Horrela, gune bakoitzeko pertsonen ordezkariak defendatuko ditu haren interesak eta beharrik tokiko foroetan eta Laudioko beste eremu batzuetako teknikarien eta ordezkarien aurrean", aldarrikatu du Gomarak.

Partaidetza eredu berri hau aurrekontuetan islatu nahi du Laudioko Udal Gobernuak. Parte-hartze araudiak horrela jasotzen du bere 26. artikuluan, Jakinda Artaraz zinegotziak gogoratu duenez: "Udalak legealdi bakoitzean gauzatu beharreko helburu estrategiko nagusiak hautatze-

**"Kontua da herritarrek aurrekontu osoaren definizioan parte hartzea. Beraz, helburua da urte batzuen buruan aurrekontu osoak parte-hartzaileak izatea"**

ko prozesua jarriko du abian, bai eta helburu horiek lehenesteko prozesua ere". Hori dela eta, premiazko proposamenak eskatuko dizkiete auzo-batzarrei 2024ko aurrekontuetan sartzeko. Orain arte, "aurrekontu parte-hartzaile" deitu zaie auzo-batzarretatik ateratako proposamenei, baina terminologia aldatuko du udal gobernuak, eta "auzo-partidak" izango dira aurrerantzean.

Izan ere, aurrekontu osoa egiteko parte-hartze prozesua jarriko da abian, horretarako beharrezko mekanismoak ezarritik. "Kontua da herritarrek aurrekontu osoaren definizioan parte hartzea, eta ez aurrekontuaren parte txiki batean bakarrik. Beraz, helburua da urte batzuen buruan aurrekontu osoak parte-hartzaileak izatea", azaldu du Artarazek. Horren arabera, "auzo-partidak" deritotenek balioko dute aurrekontu osoa egiteko parte-hartze prozesuan jaso ez diren proposamenei aukera bat emateko.

## Laudio

Mikel Amundarain sailburuordeak langileei jakinarazi die berrezarri dela Guardianen eta balizko eroslearen arteko komunikazioa, “hotza eta konfiantza gutxikoa” den arren.

# Autoglas-Glavistaren aferan zuzenean esku hartzea eskatu diote sindikatuek Eusko Jaurlaritzari

Testua  
Aitor Aspuru Saez

Berrezarri da Guardianen eta Autoglas-Glavistaren balizko eroslearen arteko komunikazioa, “hotza eta kofiantza gutxikoa den arren”. Hala jakinarazi die Mikel Amundarainek haizetakoen fabrikako langileei. Sindikatueta-ko kideak iragan ostegunean bildu ziren Eusko Jaurlaritzako Industria sailburuordearekin, eta hor jaso zuten albistea.

Amundarainen arabera, “gutxieneko batzuk” adostea izaten ari da bi aldeen arteko elkarrizketen helburua, baina Jaurlaritzatik ez omen dute gaiari buruzko informazio gehiago.

Hala azaldu du ELAko sail sindikalak bileraren ostean plazaratutako oharrean: “Industria sailetik esan digute astero hitz egiten dutela alde guztiekin balizko aurrerapausoen egoeraren berri izateko, eta prest daudela egin beharreko ekarpenak egiteko, dituzten gaitasunen arabera betiere”.

## Enpresan esku hartzeko deia

Baina langileen ordezkariak ez daude lasai albiste berriekin. ELAren aburuz, “atzeratuta dago Autoglas-Glavista. Gauzak hala, enpresan zuzenean esku hartzea eska-

tu dio sindikatuak Jaurlaritzari, eta horri buruzko hamabost orriko txosten bat eman dio erakunde publikoari, bertan proposatzen diren neurriak aplikatzeko eskumena duela nabarmenduta.

LABeko ordezkariak ere ez ziren lasai atera bileratik. “Presionatzen” jarraitzeko beharra dagoela nabarmendu dute sindikatu abertzaleko kideek, “elkarrizketak berriz abiarazi izanak ez duelako halabeharrez konponbide bat mahai gainean jartzen”. Horregatik, “mobilizatzen eta antolatzen jarraitzeko deia” luzatu diete langileei, eta inplikazio handiagoa eskatu diote Eusko Jaurlaritzari, bestelako “aukera eta alternatibak” bilatu dituzan elkarrizketek huts egiten badute. Horri lotuta, LABek berriz gogoratu du Jaurlaritzak diru publiko ugari sartu zuela Autoglas-Glavistan, eta “inplikatu zuzen” bilakatzeko duela horrek.

## Arabako Batzar Nagusietan

Ostiralean, aldiz, Arabako Batzar Nagusietan hartu zuten hitza Autoglas-Glavistako langileek. Orain arte plazaratutako aldarri eta kezka berak jarri zituzten mahai gainean, Guardianen helburua Autoglas-Glavista "eskuak zikindu gabe ixtea" dela azpimarratuz.



Arabako Batzar Nagusietan ere hartu zuten hitza langileek ostiralean. Arabako Batzar Nagusiak

## CLÍNICA DENTAL OROZKO



Interesik gabeko finantzaketa

MINIK GABEKO LASER BIDEZKO  
HORTZ -TRATAMENDUAK

3D DIAGNOSTIKOA

AHO BARNEKO ESKANERRA  
(CAD-CAM)

Lehendakari Agirre enparantza 8 behe, OROZKO · [www.clinicadentalorozko.com](http://www.clinicadentalorozko.com)  
946 61 04 19 · 688 678 604 (Hitzordua Whatsapp bidez ere ematen ditugu)

## QUICK PC REPAIR



Informatika argi eta erraz

ETXEZ  
ETXEKO  
ZERBITZUA  
gainkosturik  
gabe

· Salmenta · Konponketak

· Informatika-ekipamenduen eta STen inguruko prestakuntza ematen dugu negozio eta etxetarako

· Bezeroaren premietara egokitutako fakturen eta tiketen diseinua, eta kudeaketa-programen diseinua

Galdetu PC eta ordenagailu eramangarrien **RENOVE PLANA**ri buruz

Dionisio Aldama 2, AMURRIO · 685 70 19 56 · 945 03 48 12  
[www.quickpcrepair.es](http://www.quickpcrepair.es) · [quickpcrepair@quickpcrepair.es](mailto:quickpcrepair@quickpcrepair.es)

# argazki erreportajea

Kexaako monumentu multzoko ateak irekita daude iragan azaroaren 4tik. Herritarrek asteburu eta jai egun guztietan izango dute bertan gordetako altxorrak ikusteko aukera, abenduaren 17ra arte. Aiaraldea Komunikabideak monumentuaren barrura sartzeko aukera izan du.

## Kexaako monumentuko ateak parez pare zabaldu dituzte



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**


Azaroaren 4tik abenduaren 17ra, larunbat, igande eta jai egun guztietan, herritarrek Kexaako monumentu multzoa bisitatzeko aukera izango dute.

Arabako Foru Aldundiak iragan urte amaieran erosi zion monumentu multzoa ordura arte erai-kinaren jabea zen Dominiken

Kongregazioari, 3,4 milioi euroren truke.

Urriaren 29an, Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, aparteko bisita eskaini dute, Foru Aldundiak abiatutako ate-irekien jardunaldien aurrekari. Ramiro Gonzalez Arabako Ahdun Nagusiak ostiralean bisitatu zuen espazioa Ana Del Val Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuarekin batera.

Gonzalezek hitzetan "monumentu multzoa, jada arabarren jabetzakoa den altxor material eta immateriala izateaz gain, elementu estrategikoa da, zalantzarik gabe, ingurua dinamizatu eta bultzatzeko, eta horrek Aiaraldeko garapen ekonomiko eta sozialerako lagunduko du, eta horretan dihardu Foru Aldundiak, epe labur, ertain eta luzerako ekintzen bidez".



**babestutako edukia**

# NAZIOA GARA.

**ehbildu**

**Mobilizazio  
Nazionala**

Azaroak 18 · 17:30  
La Casilla · Bilbo



# erreportajea

## Arlamendi: Baranbioko mintegia



Baranbion kokatuta dago Arlamendiko mintegia **Jesus Mari Garayo**

Aztarna Elkarteak urriaren 4 eta 5ean Amurrion antolatutako II. Jardunaldi Etnografikoetan, Arlamendiko Baranbio Mintegiari buruz egindako ikerketaren nondik norakoak aurkeztu zituen Jesu Mari Garayok. Bertan azaldutakoak plazaratu ditu artikulu batean.



Testua **Jesus Mari Garayo**

Arlamendi Gorbeiaiko Parke Naturalaren terminoa da, eta, partekatua izateaz gain, Orozko eta Zuia udalerrriak eta, beraz, Araba eta Bizkaiko lurraldeak banatzen ditu.

Ingurua ezagutzen dutenek badakite Nafarkortatik Garrastatxuko ermitarantz jaisten den mendi-hegalean bi haztegi daukela, pagoen, haritzen eta pinuen artean erdi ezkutatuta: bata, Zuiako udalerrian, Baranbioko kontzejuarena, eta bestea, jabetza pribatua, lehenengotik 500 bat metrora, Orozkoko mendietan, "Mintegizaharra" edo "Sarratuzaharra" izenez ezagutzen dena. Kontserbazio-egoera desberdina da: Araban, ondo

mantendu da, 2021ean harrizko hormaren zati kaltetuak berritu ondoren, 21 boluntarioren parte-hartzearekin; bigarrenetik, berriz, horma-itxituraren hondakinak baino ez dira geratzen, pinu artean estalita.

Eraikuntzaren kalitate eta tainagatik eta zuhaitzen altueragatik, Baranbioko mintegia bisitatzeko ustekabeko harridura eta emozioak sortzen dizkie mendizale, mendi-ibiltari, ehizari eta perretxikozale, eta era guztietako elukubrazioak pizten ditu, ez beti oinarrituak.

Aztarna Elkarteak urriaren 4-5ean Amurrion antolatutako II. Jardunaldi Etnografikoetan, Arlamendiko Baranbio Mintegiari buruz hitz egitea egokitu zitzaidan lehen egunean. Aiaraldea egunkariaren erredakzioak

eskatuta, jarraian laburbiltzen ditut hitzaldian komentatutako ideia batzuk.

### Altubeko mendiak

Azaldu beharreko lehen alderdia da Baranbiok haztegi bat zuela bere lurraldetik kanpo kokatutako mendi batean. Arlamendiko parajea, mintegia dagoen lekua, Altubeko mendietan XVIII. mendearen amaiera arte Zuia eta Baranbioko biztanleek modu komunean aprobetxatutako espazioaren parte izan zen. Jabetza eta erabileragatik hirurehun urtez izandako auziek eragindako pobretzea amaitzeko, 1797ko apirilaren 25eko Konkordian mendia zatitzea hitzartu zuten.

Baranbio eta Zuia jabe bihurtu ziren esleitutako zati bako-

tzean, baina lurzorua aprobetxamenduen erabilera mankomunatu mantendu zen (larrak, urak, granak, harria...). Dibisioan, Altubeko Mendien zatia egokitu zitzaion Baranbiori, bere jurisdikziotik hurbil. Arlamendik, zehazki, mendien ipar-ekialdeko isurialdea hartzen du, eta gaur egun 869 hektareako azalera esleitzen zaio.

Basoberritzea kontuan hartu beharreko alderdia da. Altuben zuhaitzik gabeko eremuak birlandatzeko erabili zen prozedura birsorkuntza naturalaren eta baso-landaketen prozesuen konbinazioan oinarritu zen. Berrez sortutako kimu eta landareek erabilera bikoitza izan zezaketen.

Alde batetik, kimuak haztegitara aldatzen ziren, eta bertan

arreta berezia jartzen zitzairen (kakalardoak, inausketak...), zuhaitzik gabeko lurretan landatu arte, espero ziren altuera, lodiera eta bizitasuna lortzen zutenean. Bestalde, hedatuta zegoen jada hazita zeuden landareen erauzketa, birsortze naturala ugari zen lekuetatik, eta zuzenean landatzen ziren mendiko beste eremu batzuetan, aurretik mintegietatik igaro gabe.

### Arlamendiko mintegia

Baso-haztegien helburua landarea lortzea zen, behin hazita, inguruko mendietan birlandatzeko. Zerratu batek landak basa-faunaren eta etxeko abereen ekintzatik babesteko balio zuen. Aldi baterakoak eta ibiltariak izan zitezkeen, hesiz egindako itxiturarekin, eta iraunko-

rrak, berriz, harria itxiaren oinarria zenean. 1847tik, gutxienez, Baranbiok haztegi iraunkor bat izan zuen Sagastimunen.

Arlamendiko mintegia 1859an sortu zen. Eraikuntza Arabako Foru Aldundiak ezarritako konpentsazio-neurriei lotuta egon zen, kontzeju-mendietako hainbat parajetan lauhun arantzazu lantzeko herritarrek egindako eskaera onartzearen ondorioz. Horietako batek, zehazki, agindu zuen bildutako diru-sarrerak mintegi komuna lantzeko eta bertan gaztainondo eta haritzak landatzeko erabiltzea. Sagastimuneko haztegiak, ordea, badirudi ez zituela betetzen etorkizuneko basoberritze itxaropenak betetzeko baldintzak. Ahal-dun Nagusiaren aginduz, luberritze-eskaeraren ondorioz, Arlamendin haztegi berri bat sortu zen. Mintegiak 5.300 metro karratuko azalera hartzen du, hareharrizko horma lehor batez in-

## Arlamendiko mintegia 1859an sortu zen, eta eraikuntza Arabako Foru Aldundiak ezarritako konpentsazio-neurriei lotuta egon zen

guratuta. Hormak 1,90 metroko altuera du goiko aldean, eta hirurogei eta laurogei zentimetro arteko zabalera.

Diseinatutako hormaren tamaina ikusita, badirudi landareak animalien aurrean babes-teaz gain, disuasio-hesi bat erai-ki nahi izan zuela arrotzen eta lapurren aurka. Obraren kostua 2.189 errealekoa eta 9 marabedikoa izan zen. 1860an, kontzejuak lurra goldatzeari ekin zion. 1861-1863 urteen bitartean, pagoen eta haritzen 3.500 kimu landatu ziren. 1864an egindako landareen joraketak eta lurra- ren garbiketak instalazioa eratu zela adierazten dute.

Gutxi gorabehera 25 urtean behin, Baranbioko Administra- zio Batzarrak horma berri eta konpondu zuen. Era berean, lu- gorriak eta simaurtegiak egiten zizkieten lursailari, eta, hiru urte igaro ondoren, espazioa berriro landatzen zuten. Azken aukera

1924-1926an izan zen. Etapa ho- netakoak dira, beraz, gaur egun esparruak dituen zuhaitz, haritz eta pagoak.

### Zuraren kultura-ondarea.

Baso-ereduak erabateko eral- daketa izan zuen XX. mendearan erdialdean. Horren inguruan, baso ustiapen intentsiboa ezar- ri zen, espezie erretxinadunen landaketan bidez, zelulosa- eta pasta-eskari industrialak asetze- ko. Baranbion, koniferoen bir- populaketek, Gorabie (1948-49) demarkazioko kontzeju-mendie- tan hasitakoek, jarraitu egin zu- ten 1950-1970eko hamarkadetan hamarkadetan Asiegi, Olako, Gar- rratatxu-Garate, Otola-Garras- tatxu eta Itiguietan. Bestalde, egungo energia-iturri nagusiek (petrolio, gasa...) ezohiko gor- kada izan zuten urte haietan. Ho- rrek baso sistema tradizionala- ren gainbehera ekarri zuen, ika- tza eta egurra ekoizteko espezie

hostotsuen kudeaketan oinarritu- tua. Arlamendiko haztegiak fun- tzionaltasuna galdu zuen, eta be- rrikuntza, 1950eko hamarkadan egin behar zena, jada ez zen gau- zatu. Mintegia eta ingurunea har- riz eta hostozabalen baso-es- peziez osatutako multzo eder eta parerik gabea da. Harresia (sendotasuna, harrizko mate- rial onak, tamaina) eta zuhaitzak (neurria, liraintasuna eta ehun urteko adina) dira euskal hazte- gien adibide ondo kontserbatua, noski, espezie hostotsuen (paga- diak, hariztiak...) baso-ustiape- nean oinarrituta egon zirenak. Mintegia, zentzu horretan, eus- kal lurraldean gordetako kulta- ra-ondarearen irudikapen bere- zia da, baso-sistema tradizio- nalen aldean. Mintegia bisitatu nahi izanez gero, Luiso Lopezek wikiloc.com webgunean argita- ratutako Baranbioko Egurraren Ibilbidean islatutako argibideak jarraitzea gomendatzen dut.



KO  
MU  
NI-  
KA

FAK  
TORIA

## INTERPRETAZIO ZERBITZUAK

Zalantzan zaude zure ekitaldia euskaraz ala gaztelaniaz antolatu? Egizu euskaraz, eta guk aldebereko itzulpena egingo dugu gaztelaniaz!

Tokikoak, gertukoak eta eskarmentu handikoak.

Elkarte-  
entzat  
eskaintza  
bereziak!



[www.komunika.eus](http://www.komunika.eus)

[ainhoa.sanchez@aiaraldea.eus](mailto:ainhoa.sanchez@aiaraldea.eus) · 722 22 75 42 · FAKTORIAN, Errotari kalea, 4-8 LAUDIO @ [@komunika.eus](https://www.komunika.eus)



## Zolloko eta Lezamako jaiak alaituko dituzte azaroko egun hotzak

Azaroan ere ez dira falta Aiaraldeko herri eta auzoetako festak. Ohikoan bezala Zolloko eta Lezamako jaiak hartuko dute protagonismoa, baina hitzordu gehiago ere egongo dira.

Azaroaren 10ean hasiko dira Lezamako jaiak. Administrazio Batzarrek hiru eguneko egitarau oparua prestatu du. Auzokideak Lezamako txokoaren inguruan elkartuko dira, bazkari eta afari herrikoietan. Larumbata izango da egunik oparoenoa. Egitaraua goizetik gaurera luzatuko da, eta Akerbeltz erromeriaren eta DJ Varro musika jar-

tzaileen kontzertuak izango dira osagai nagusiak. Ohiturari jarraituz, Lezamako Mendi Martxarekin eta honen osteko poteo eta mus txapelketarekin agurtuko dituzte aurtengo jaiak.

### Zolloko Jaiak

Lezaman bezala, Zollon ere azaroaren 10ean jaiartiko dute lehenengo suziria, 20:00etan. Jaiarraian Orkresta Elektrotunak alaituko ditu herriko basterrak. Larunbatean musika eskaintza izango da nagusia. 20:00etan hasiko dira kontzertuak

eta goizeko ordu txikiak arte ez da festa geratuko. Oholtza gainera Los Gavilanes mariatxi taldea, Alarma Morea, Kristonak eta Beranduegi erromeria igoko dira.

### Ugarte Eguna

Ugarteko jaiak aspaldi igaro baziren ere, auzoko jai batzordeak herritarrek beste behin batzeko egitaraua prestatu du azaroaren 18rako. Auzokideen arteko harremanak estutzea dute helburu, eta horretarako bazkaria eta kontzertuak egingo dituzte.

## MUSIKA

### 11.10 Ostirala

20:00 ARRANKUDIAGA ZOLLO  
TXUPINAZOA ETA  
ORKRESTA ELEKTROTUNA  
Zolloko Jaiak  
Zollo

### 11.11 Larumbata

20:00 ARRANKUDIAGA ZOLLO  
LOS GAVILANES, ALARMA  
MOREA, KRISTONAK ETA  
BERANDUEGI ERROMERIA  
Zolloko Jaiak  
Zollo

### 11.11 Larumbata

20:00 AMURRIO  
AKERBELTZ ERROMERIA  
ETA DJ VARRO  
Lezamako jaiak  
Lezama

### 11.12 Igandea

13:00 ARRANKUDIAGA ZOLLO  
NAFARROA KANTU TALDEA  
Zolloko Jaiak  
Zollo

### 11.17 Ostirala

19:00 URDUÑA  
POTEO MUSIKALA  
Plano on the rocks, Egoitz  
Uriarte eta Botxo Boogies  
Urduñako tabernak

### 11.18 Larumbata

13:00 URDUÑA  
POTEO MUSIKALA  
Periflay, Confluence, The  
Smoke Dealers, Kiki Boys,  
Txalainak, Icipop & Tatoman,  
The Cherry Booppers  
Urduñako tabernak

### 11.18 Larumbata

18:00 LAUDIO  
JO TA KE ERROMERIA ETA  
DJ HERRI SOUND  
Ugarte Eguna  
Ugarte

### 11.18 Larumbata

21:00 LAUDIO  
MATX ETA IBIL BEDI  
Faktoria

### 11.19 Igandea

13:00 URDUÑA  
POTEO MUSIKALA  
Junami Atlantida, Mubajito,  
Gorka Naste, Amaury  
Santacruz eta Bandidos  
Urduñako tabernak

## HITZALDI ETA TAILERRAK

### 11.09 Osteguna

18:30 AMURRIO  
BIZKAIKO ETXEKO

### 11.18 Larumbata

17:00 LAUDIO  
GRAFFITI TAILERRA  
Kale Arte egitasmoaren II.  
edizioa  
Faktoria

## KIROL JARDUERAK

### 11.11 Larumbata

11:00 AMURRIO  
ZIKLOKROS PROBA  
Lezamako Jaiak  
Lezama

### 11.12 Igandea

09:30 URDUÑA  
VI. URDUNAKO MENDI  
LASTERKETA  
Foru Plaza

### 11.12 Igandea

10:00 AMURRIO  
MENDI MARTXA  
Lezamako jaiak  
Lezama

## HAURREN JARDUERAK

### 11.11 Larumbata

12:00 ARRANKUDIAGA ZOLLO  
PUZGARRIAK ETA  
TAILERRAK KIRIKIÑO  
ATSEDEN TALDEAREKIN  
Zolloko Jaiak  
Zollo

### 11.12 Igandea

10:30 ARTZINIEGA  
HAUR KANTA TAILERRA  
Patricia Sesar eta Maria  
Vegaren eskutik  
Artziniiegako Eskola

### 11.15 Asteazkena

16:30 AMURRIO  
WIKITXOKO  
Udal liburutegia

### 11.19 Igandea

17:00 AMURRIO  
MINIMACH  
Stop motion teknikako  
film animatua 2 eta 6 urte  
bitarteko haurrentzat  
Amurrio Antzokia

## IKUSKIZUNAK

### 11.11 Larumbata

20:00 AMURRIO  
KILIMATERIO  
Kaitin Allenderen  
bakarrizketa Ohane Perea,  
Iratzi Anda eta Iratxe Ibarra  
bertsolariekin  
Amurrio Antzokia



# Urduñako VI. mendi lasterketa azaroaren 12an



Iazko arrakasta mantentzeko asmoz, Gualdetxu Mendi Bizikleta eta Trail Taldeak antolatutako Urduñako Mendi Lasterketaren edizio berria datorren azaroaren 12an egingo dute. Bi zirkuito prestatu dituzte: 14 kilometroko luzera eta 550 metroko desnibel positiboa duen laburra; eta, 33 kilometroko eta 1.750 metroko desnibel positiboa duen luzea. Azken hau erreleboka ere egin ahalko dute.

# Joseba Sarrionaindia Onomastika topaketetako gonbidatua, besteak beste




Aztarna Elkarte Etnografikoak Onomastika topaketen edizio berria prestatu du asteburu honetarako. Azaroaren 10ean eta 11n hitzak eta izenak aztertuko dituzte, "historiaren eta bizitzaren lekukoak" direlako. Horretarako hainbat hitzaldi aurkeztuko dituzte, hizlari desberdinen eskutik.

Amurrioko Katekesi Aretxean egingo dituzte jardumaldiak. Ostiralean 17:00etan inauguratuko dute topaketa. Aitor Aspi-

zu, Josu Larrañaga, Jesus Mari Garayo eta Amagoia Gezuraga arduratuko dira lehengo egunean onomastikaren inguruko euren ikerketak azaltzeaz.

Larumbatean 10:15ean ekingo diote egunari. Bigarren egunean David Peterson, Joseba Sarrionaindia, Joxemari Sestorain, Iago Irixoa eta Mila Gabiola izango dira hizlari nagusiak. Horrez gain Enusquerak Elkartearen aurkezpena ere eskainiko dute.

# Kartelera



LA MILAGROSA

**Las Chicas están bien**

**AZAROAK 11**  
LARUNBATA (3 euro)

19:00



AMURRIO ANTZOKIA

**Golpe de Suerte**

**AZAROAK 11, 12**  
IGANDEA ETA ASTELEHENA  
(5 / 3,75 euro)

19:00



DONIBANE ARETOA

**Mamacruz**

**AZAROAK 11**  
IGANDEA (3,5 euro)

19:00



LA MILAGROSA

**Las ocho montañas**

**AZAROAK 18**  
LARUNBATA (3 euro)

19:00

**LANGILEEI BURUZKO HITZALDIA**  
Lorea Uretaren eskutik  
Katekesi aretoa

**11.10 Ostirala**  
17:00 OKONDO  
**AZUKERIK GABEKO SUKALDARITZA**  
Guillermina Garcíaren eskutik  
Nagusien lokala

**11.10 Ostirala**  
17:00 AMURRIO  
**V. ONOMASTIKA TOPAKETA**  
Aitor Asplazu, Josu Larrañaga, Jesus Mari Garayo eta Amagoia Gezuraga  
Katekesi aretoa

**11.10 Ostirala**  
17:30 AIARA  
**TRATU ONA NAGUSIEI**  
Tratu txarren prebentziorako hitzaldia  
Alday zentroa

**11.11 Larumbata**  
10:15 AMURRIO  
**V. ONOMASTIKA TOPAKETA**  
David Peterson, Joseba Sarrionaindia, Joxemari Sestorain, Iago Irixoa, Mila Gabiola  
Katekesi aretoa

**11.11 Larumbata**  
17:00 LAUDIO  
**MUSIKA ELEKTRONIKO TAILERRA**  
RLantz Djaren eskutik  
Faktoria

**11.12 Igandea**  
10:00 OROZKO  
**SOLSTIZIO ETA EKINOZIOAK OROZKO HARANEAN**  
Felix Mugurutzaren hitzaldia  
Orozko Museoa

**11.16 Osteguna**  
17:00 AIARA  
**KLIMA ALDAKETA ETA EMAKUMEAK**  
Solidaridad Internacional  
Gobernuz Kanpoko Erakundearekin  
Emakumeen gela

**11.17 Ostirala**  
17:00 OKONDO  
**AZUKERIK GABEKO SUKALDARITZA**  
Guillermina Garcíaren eskutik  
Nagusien lokala

**11.17 Ostirala**  
17:30 OKONDO  
**GOSE EMOZIONALA**  
Eider García Albeniz  
nutrizionistaren hitzaldia  
Gizarte Etxea

**11.18 Larumbata**  
18:00 URDUÑA  
**ARTXIBO BILUZIA, PANPIN HAUTSIEN DANTZA ETA FOREVER**  
Arte Hartze Zikloaren barruan  
Faktoria

BESTELAKO JARDUERAK

**11.10 Ostirala**  
14:30 AMURRIO  
**65 URTEK GORAKO AUZOKIDEEN BAZKARIA**  
Lezamako Jaiak  
Lezamako txokoa

**11.11 Larumbata**  
09:00 OROZKO  
**SAN MARTIN JAIAK**  
San Martin auzoa

**11.11 Larumbata**  
10:00 ARTZINIEGA  
**AJARALDEKO BERTINTASUN TOPAKETAK**  
Artziniega Museoa

**11.12 Igandea**  
16:30 AMURRIO  
**MUS TXAPELKETA**  
Lezamako Jaiak  
Lezamako txokoa

**11.14 Asteartea**  
17:30 OKONDO  
**FAMILIA JOLASEAN**  
Gurasolagun egitasmoaren barruan  
Carlos Garaikoetxea plaza

**11.16 Osteguna**  
18:00 LAUDIO  
**ARTILEZKO SOLASALDIAK**  
Lezeaga Aretoa

**11.18 Larumbata**  
11:00 LAUDIO  
**UGARTE EGUNA**  
Ugarte auzoa

**11.18 Larumbata**  
15:00 ARRANKUDIAGA ZOLLO  
**HERRI BAZKARIA**  
Zolloko Jaiak  
Zollo

**11.19 Larumbata**  
10:00 LAUDIO  
**INDABA JAIA**  
Indaba azoka eta putxera  
Iehiaketa  
Ugarte

**INFO +**  
aiaraldea.eus

# kultura

**“Jendeak ondo pasatzea eta jañiak errespetuz gozatzea; hori da helburua”**



**XABIER BERGANZA URRUELA** (Amurrio, 1990) AIARALDEKO SOINU SISTEMAKO KIDEA DA. HAMAR URTE DARAMATZATE REGGAE SOINUAK AUTOGESTIOZ HEDATZEN. KOLEKTIBOAREN NONDIK NORAKOAK ALETU DITU.



Testua **Aitor Aspuru Saez**  
Argazkia **Naia Vallejo**

**Hamar urte bete ditu aurten Aiaraldeko Soinu Sistemak. Nola ospatuko duzue urteurrena?**

Aurten hamar urteak ospatzeko, Raw aretora joango gara, datorren azaroaren 18an. Barakaldon egingo dugu jaialdia. Ingalaterrako ekoizle eta selektore bat gonbidatu dugu, hamar urteak ospatzeko. Bere izena Aba Shanti da, gure mugimenduan indar handia duen selektore bat da, oso ospetsua. Horra joatera gonbidatzen zaituztegu.

**Soinu sistemaren hizkera kontrolatzen ez dugunontzat, zer da selektorea?**

Selektorea biniloak hautatzen dituen pertsona da. Askotan ekoizleak dira ere, musika ekoizten dute. Tipo hau oso famatua da, urte asko daramatzalako musika hautatzen eta Ingalaterran saio asko antolatzen. Horregatik gonbidatu dugu. Azken finean izen handia dauka gure mugimenduan, eta aproposa iruditzen zitzaigun bera gonbidatzea.

**Zein izan da Aiaraldeko Soinu Sistemaren ibilbidea hamar urte hauetan?**

Aiaraldeko Soinu Sistema Mugimendua zen hasieran, gerora izena moztu genuen, murriztu genuen, eta Aiaraldeko Soinu Sistema geratu zen. Urteak pasa ahala kide kopurua murriztu eginda, orain aktiboki bi kide gaude bakarrik.

Lehenengo urteetan jende asko inplikatu zen. Baina denborarekin batzuk lanean hasi dira, beste batzuk kanpora joan dira bizitzera... Bi bakarrik geratu gara, eta bion artean jarraitzen dugu proiektua aurrera eramaten.

**Zertan oinarritzen da soinu sistemaren diziplina hau?**

Jamaikan jaio zen diziplina da. Guk jarraitzen dugun eredu jamaikarra da. Bertan hasi zirenean soinu sistemak egiten, kalean bozgorailuak jartzen zituzten eta edaria saltzen zuten jai horietatik etekina ateratzeko. Urteen poderioz Ingalaterrara joan zen mugimendua. Horregatik guk jartzen dugun musika asko Ingalaterratik dator, beste asko Jamaikatik ere. Ingalaterrakoa da gehien gustatzen zaiguna.

**Jamaikan eta Ingalaterran erroak dituen arren, mundu oso-tik zabaldu da.**

Azken finean musika estilo askoren jatorrian dagoena Jamaikako

reggaea da. Reggaea zabaldu zenean bertatik eratorri ziren hip-hop, drum & bassa, dub stepa... Azpies-tilo asko daude, baina guztien oinarria Jamaikako reggaea da. Espainiako estatura ere indartsu iritsi zen. Bilbon, esaterako, oso mugimendu indartsua egon da. Gurea, esaterako, Euskal Herriko bigarren belaunaldia da, eta horrek indar asko eman digu. Hasi ginean mugimendua ahul zegoen ordurako, nolabait guk eman digu indarra, eta hori garrantzitsua izan da guretzat. Saio asko atera zaizkigu eta asko ibili gara Espainia eta Frantziatik mugimendua erakusten eta irakasten.

**Zuen kasuan zein musika estilo jarzten duzue?**

Hasi ginen genero askotako musika jartzen, baina orain murriztu egin dugu eta reggaea da nagusiki jartzen duguna. Hastapenetako reggaea, ska edo rock stadya jartzen dugu. Roots deitzen den 1970eko Jamaikako musika ere jarzten dugu. Azkenaldian modan jarri den stepa edo UK dub musika jarzten dugu ere. Azken hauek Europan sorturiko estiloak dira, beraz, esan bezala, Jamaika eta Ingalaterrako musika jartzen dugu nagusiki.

**Aretoei dagokienez ere izan duzue bilakaera bat; Laudioko gaztetxean hasi zineten, baina orain badituzue beste plaza batzuk.**

Bai, azken finean Laudioko gaztetxea itxi zutenean beste leku batzuk bilatu behar izan genituen. Gure lehenengo geltokia Boluetako Mito aretoa izan zen; bertan urte bete egon ginen lan egiten. COVID-19a etorri zenean gelditu egin ginen. Orain Raw aretoarekin hasiko gara lan egiten. Ea zer moduz ateratz den.

Arazoa da gure bozgorailuek indar asko daukateal eta ezin direla edonon jarri. Horregatik leku aproposa bilatu behar da saioak egiteko.

**Arazoa edo abantaila.**

Abantaila hori da (barreak). Faltan botatzen dugu hastapenetako eredu hori. Azken finean Aiaraldeko gaztetxeetan ikasi genuen autogestioaren eredu eta mugimendu okuparen eredu. Hasi ginean Laudioko Gaztetxea zegoen, baina baita La Cuadra, Chabakania eta Orbeko Etxea.

Gure lehenengo konzertua Orbeko Etxean izan zen, gero mugitu ginen Laudioko Gaztetxera. Hori faltan botatzen dugu, baina bilatzen dugun helbururako espazio hauek txiki geratu dira orain.

**Lehenengo urte horietan mikro-**

**fonoarekin ikusten zintugun gehiago. Aldatu da hori?**

Lehen mikrofonoan egoten nintzen gehiago bai. Orain operadore moduan ere aritzen naiz. Hortik kanpo promotore lanetan ere ibiltzen naiz; beti nabil kontzertuak bilatzen, aretoak bilatzen edo artistekin hitz egiten saioak aurrera eramateko.

Gauza bat egiten hasten zara, baina denborarekin gero eta gauza gehiago egin behar dituzu. Mikrofonoarena parte txiki bat baino ez da. Lan asko dago soinu sistemaren atzetik: mantenua egin behar da, dena eguneratuta eraman...

**Soinu istemaren filosofiaren zati handi bat bada zuen bozgorailu propioa egitea.**

Bai hori da, eta guk hori egin dugu autogestioaren bidetik. Azken finean uste dut gu bezalako proiektu gutxi daudela mugimendu honetan. Gure lehenengo urteetan ateratzen genuen etekin bakarra Laudioko Gaztetxean edaria saltzetik eta *merchan*-a saltzen lortzen

**“Musika estilo askoren jatorrian dagoena Jamaikako reggaea da”**

genuen soilik. Horrek denbora asko darama, etekina oso txikia da eta soinu sistema eraikitzeak inbertsio handia eskatzen du.

Urteekin hasi ginen dirua egiten. Hiru urte behar izan genituen *sound system* txiki bat izateko. Horrekin hasi ginen lanean. Orain, denborarekin ikusita, oso gauza polita izan da guretzat; saio asko egin ditugu dirua ateratzeko eta horrela beteranoa bilakatzen zara. Bada-kizu musika nola jarri, nola ajrri bozgorailuak... Hori irakaspen polita izan da guretzat; autogestioaren bidetik soinu sistema eraikitzea.

**Hastapen horietan egondako jendeak jarraitzen du laguntza eskaintzen?**

Hasieran bederatzi edo hamar kide izango ginen. Gaur egun ere, nahi dutenean hurbiltzen dira eta musika jartzen dute. Ez diogu atea inori ixten. Hastapenetan egon ziren haiek ere proiektuaren parte dira. Proiektua ezerezetik handitasunera erametko prozesuaren parte izan dira, eta hori oso garran-

**“Amurrioko Jaietan zortzi bozgorailu estreinatu genituen, eta hasierako lan-talde guztia egon zen. Oso polita izan zen”**

tzitsua da. Amurrioko Jaietan zortzi bozgorailu estreinatu genituen, eta hasierako lan-talde guztia egon zen. Oso polita izan zen.


**Zer azpiegitura behar da zuena bezalako sound system bat izateko?**

Lehen zortea geneukan Luiaiondon bazegoelako furgonetak alokatzeko lokal bat, baina orain Bilbora jo beharra dugu. Oso furgoneta handiak behar dira dena mugitzeko.

Saioa larunbatean baldin badugu, lana ostiralean hasten da. Abandon alokatzen dugu furgoneta, Amurriora etorri, dena kargatu, montatu, desmontatu... aste-buru osoko lana da. Aukeratu dugun lana eta militantzia da, gustora egiten dugu. Hau da egiten dakiguna.

**Asko hitz egin dugu lanaz, baina hamar urteko ibilbidean aurrera egiteko onuraren bat izango zuen. Zerk motibatzen zaitu gehien?**

Ni motibatzen nauen kontu



# kultura

garrantzitsu bat da hasieran genuen helburu bera: jendeari erakustea proiektu autogestionatu bat indartsua izan daitekeela. Guk ez dugu inoiz dirurik jarri. Proiektua finantzatzeko lortutako diru guztia gure jaietatik lortu dugu. Hori izan da niri lehenengo motibazioa.

**“Aiaraldeko gaztetxeetan ikasi genuen autogestioa eta mugimendu okuparen eredia. Hasi ginenean Laudioko Gaztetxea zegoen, baina baita La Cuadra, Chabakania eta Orbeko Etxea”**

Orain izen bat daukagu, eta belaualdi berriei irakatsi nahi diegu nolakoa den soinu sistemaren kultura. Polita da belaualdi berriak hazten ikustea. Hamar urte daratzen musika jartzen, bozgorailuak eraikitzen... Uste dut orain gure egitekoa gazteei irakastea dela. Guk jaso genuen bezala belaualdi berriei transmititzea.

**Eta saioan murgilduta zaude-nean?**

Aurrekoan, adibidez, Durangon montatu genuen soinu sistema. Jendea dantzan, saltoka eta irribarez ikusten duzunean guztia ondo dabilenaren seinale da. Itxi arte musika jarri eta gozarazi, ez dago beste misteriorik. Azken finean guk hau egiten dugu jendeak ondo pasatzeko eta jaiak errespetuz gozatzeko. Hori da helburu bakarra.

Gure musika ez da musika komertziala, ez da leku askotan entzuten. Hori da betse helburu motibagarrietako bat; jendeak musika honekin disfrutatzea.

**Hamar urte hauetan findu dituzue begiak eta belarriak, une bakoitzean zer musika jarri jakiteko?**

Bai, hamar urte hauetna asko



ikasi dugu; hori da gure lana. Musika jartzen baduzu eta jendeak ez badu dantzatzen, zerbait ondo ez dabilenaren seinale da. Musika estiloa aldatu behar duzu edo mikrofonotik jendea motibatu. Hamar urte asko dira, eta asko ikasten da.

**Hamar urte hauetako hiru une hautatu beharko bazenu, zeintzuk izango lirateke?**

Aurten Bogotan izan gara, Kolonbian, musika jartzen. Hori oso esperientzia polita izan da. Uste dut Bogotan ez dela inoiz musika

**“Gure saio guztietan jartzen dugu euskarazko musika, orain barneratuago daukagu, baina lehen nahiko ezohikoa zen”**

euskaraz entzun eta guk euskaraz egin genuen saioa. Jendeak galdeztzen zigun ea zer hizkuntza zen hori.

Laudioko Gaztetxean hasi ginen *Reggae Ta Ke* izeneko jaialdia egiten. Horra ekartzen genituen nazioarteko artistak. Gogoratzen dut lehenengo Gambiaiko tipo bat izan zela. Hoiri izan zen gure lehenengo urratsa kanpoko artistekin lan egiteko.

Azkenik, Madrileko bi saioen oso oroitzapen onak ditut. Madril musika euskaraz jartzea ere polita izan zen. Jendea ikustea

euskaraz egindako musika disfrutatzen oso polita izan zen. Gure saio guztietan jartzen dugu euskarazko musika, orain barneratuago daukagu, baina lehen nahiko ezohikoa zen.

**Hamargarren urteurrena ospatzeko jaia duzue azaroaren 18an. Zeintzuk dira hurrengo datak?**

Hilabetero egongo gara Raw aretoan, nazioarteko artistekin saioak egiten. Abenduan Baionara joango gara, urtarrilean Iruñera eta Santiagora. Aukera asko egongo dira gurekin disfrutatzeke.




# MIKRO AURREAN JARTZERA AUSARTZEN ZARA?

GAZTEEN-  
TZAKO  
PODCAST  
TAILER  
IREKIA

Azaroaren 18an eta 25ean, 10:00etatik 12:00etara  
Faktorian (Errotari kalea, 4-8 pabilioia, Laudio)

**Izen emate librea eta doakoa.**

Informazio gehiago eta izen ematea 688 84 81 52 telefonoan  
(Whatsapp edo deia) eta [erredakzioa@aiaraldea.eus](mailto:erredakzioa@aiaraldea.eus) helbidean.



AIA  
RAL  
DEA

urtxintxa  
eskola

# kultura

## Gaztainaren garrantzia aldarrikatu dute Orozkoko basoetan



Orozkoko kirikiñausiak bisitatu zituzten. **Samu pasandin.**

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Gaztaina Egunaren XXII. edizioa antolatu zuen Supelaur kultura elkarteak iragan urriaren 29an, Orozkoko Udalaren babe-

sarekin. Urteroko eskema jarraitu zuten: goizean mendi martxa egin zuten udalerriko mendietan barrena, kirikiñausiak bisitatze-ko.. Txangoaren ostean herri bazkariak gozatu zuten.

## “Legez kanpoko” bideoklipa grabatu du Josu Vaquerizok Yumi and the weather taldearekin

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Josu Vaquerizo sortzaile laudioarra Britainara itzuli da eta berehala hasi da lanean. Oslo utzi ondoren, Brightonera jo du eta bere ekoizpena ez du gelditu. Hain zuzen, atzo bertan sareratu zuen *Lead me through hell* bideoklipa Yumi and the weather post-punk taldearentzat.

Brightonera bizitzen joan bezain pronto ezagutu zuen Vaquerizok Yumi—hau da, taldeko burua— eta horrek proposatu zion bere azken abestirako bideoklipa ekoiztea. “*Western* abestia zela azaldu zidan, baina beste guztia nire esku utzi zuen”.

### “Legez kanpo” grabatua

Bi hilabetez egon zen laudioarra grabaketa prestatzen eta kokapena bilatzen. Azkenean, Brightonetik gertu trenez pasatzean ikusi zuen hilerria. “Bi segundoz izan zen, kasualitate hutsa, baina oso egokia zen eta belar oso garaia zuen. Apur bat markurtuta jendea ezzen ikusten” aipatu du Vaquerizok.

Araza, ordea, baimena eskatzean agertu zen: “800 euro nahi zituzten baimenaren truke, eta guk ez genuen dirurik. Esan genien beste toki batera joango

ginela, jakinda ez zela horrela izango”. Azkenean, hilerria bertaratu ziren eta “egin behar ez dena egin genuen; garaiko armen kopiekin eta baimenik gabe. Arriskua da polizia agertzea eta botatzea edo tiro egitea! Walkie-talkiekin jarri genuen jendea inguruetan, jakinarazteko ea langileren bat agertzen zen, baina konturatu ginen inori ez ziola axola zer egiten ari ginen. Hortaz, lehen eguna estresatuta egon eta gero, lasaitasunez grabatu genuen hortik aurrera”. Bideoan ez da nabaritzen gorabeherarik eta emaitza txukuna zein dibertigarria da, *western*, feminismo eta akzioa uztartuta. Dena den, azken asteetan lan gehiago sareratu ditu bere Youtube kanalean eta gonbidapena zabaldu du jendea harpidetu dadin.

### Filmen ibilbideak jaialdian

Bideoklipak egin baditu ere, Josu Vaquerizok ez du zinema alboratu. *Life in the XXI century* filmak zazpi sariekin eta hamazazpi izendapenekin amaitu du bere ibilbidea jaialdian eta *Long live the WACP* fimak, aldiz, berriki hasi du bidea egiten festibaletan eta jadanik lau izendapen metatu ditu.

## Lekeitioko Euskal Zine Bilerako film onenaren saria irabazi du Julen Zubietek Agur artzai pelikularekin

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Urriaren 21ean film onenaren saria bereganatu zuen Julen Zubietek Lekeitioko Euskal Zine Bilerajaialdian, *Agur artzai* pelikula laburrari esker. Epaileek adierazi zutenenez, “pelikulakoherentea, hunkigarria, xamurra, poetikoa eta ederra da. Errespetu osoz azalarazten du artzaiaren bizitza eta pentsamendua, heriotza eta denboraren iragana naturaltasunez begiratuz.

Gai asko ukitzen ditu sakontasunez, ikusleoi hausnartzera eramaten gaituelarik: nola bizi garen, zein balore ditugun, nondik gatozen eta nora goazen”.

Epaimahaikideek aipatu zuten trebetasun handia erakusten duela pelikulak. Hortaz, berarentzat izan zen 46. Euskal Zine Bilerako Urrezko Antzarra eta 3.000 euroko saria.

### Aitortza gehiago

Lekeition ez ezik, beste toki batzuetan ere estimatu dute Zubiete-

ren lana. Esaterako, pasa den astean Zinema Ikusezinaren Jaialdian aipamen berezia jaso zuen eta Kanariar Uharteetan ere Festival de Cine Medioambiental Canarias - FICMECek lan onenaren saria eman zion. Festival de Cine Rural y Montaña de Cervera de Pisuerga (Palencian), aldiz, argazkigintza onenaren aitortza izan zuen maiatzean.

Horiekin batera, gogoratu beharra dago iaz bi aldiz saritu zutela BBK Mendi Film Festivalen, Bilbon.

INDARKERIA MATXISTAREN AURKA  
AIARALDEA

# dantzan

**IZEN EMATEA**

Azaroaren 25 aurretik egin behar da erredakzioa@aiaraldea.eus helbidean edo 688 84 81 52 telefonoan.

Norbanakoaren edo taldearen izena bidali beharko da, baita harremanetarako telefonoa ere.

**IRIZPIDEAK**

Ez da adin ezta jende mugarik egongo.

Koreografiaren abestiak indarkeria matxistaren salaketa edo emakumearen ahalduntzearekin izan behar du zerikusia, eta euskara izan beharko da hizkuntza nagusia.

Aiaraldea Komunikabideak bideoz grabatuko ditu partaide guztien lanak. Irabazleak bozketa bidez erabakiko dira, Aiaraldea.eus atariaren bidez. Bideoaren hasieran, aukeratutako abestia eta zergatia azaldu beharko ditu partaide batek.

**KATEGORIAK ETA SARIAK**

Bi kategoria egongo dira: Norbanakoena eta taldekakoa.

Taldekako kategoriako irabazleak 500 euro jasoko ditu eta norbanakoaren kategoriakoak 200 euro.

Bozketa fasea abenduaren 18tik 22ra luzatuko da. Irabazleak Aiaraldea.eus atarian boto gehien jasotzen dituzten lanak izango dira.




**babestutako edukia**



# UDAZ KENA

FAKTORIAN



[WWW.FAKTORIA.EUS](http://WWW.FAKTORIA.EUS)



**ORDUTEGIA**

**ASTELEHENETIK BARIKURA,**  
17:00etik 20:30era

**ZAPATUETAN,**  
10:30-14:00etara

**UDAZKENEAN FAKTORIA  
ITXITA EGONGO DA:**

Azaroak 30, eguena: greba feminista orokorra!

**IDATZI EDO DEITUIGUZU**

faktoria@aiaraldea.eus - 688 64 79 42

## AZAROA



**10, barikua**  
20:00 - Faktorian  
PLAZA EGUNA/  
**GARATE  
TXAKOLINA  
ETA GAZTA  
DASTAKETA**  
DOAN

#ELIKADURA  
#DASTAKETA



**11, zapatua**  
17:00-19:00 - Faktorian  
KALE ARTE/  
**MUSIKA  
ELEKTRONIKO  
TAILERRA**  
RLANTZEN (ERLANTZ  
SERRANO) ESKUTIK  
DOAN

#GAZTEGAZTEAK  
#KALEARTE



**17, barikua**  
19:00 - Faktorian  
PLAZA EGUNA/  
**ASTRONOMIA  
GAUA**  
UNIBERTSOA  
ARAKATZERA IRTEERA  
URTZI ODRIOZOLAREN  
ESKUTIK  
DOAN

#ASTRONOMIA



**18, zapatua**  
17:00-19:00 - Faktorian  
KALE ARTE/  
**GRAFITI  
TAILERRA**  
ASIER ALDAMAREN  
ESKUTIK  
DOAN

#GAZTEGAZTEAK  
#KALEARTE



**19, domeka**  
12:00 - Faktorian  
BIZILAGUNAK/  
**KULTURARTEKO  
BAZKARIA**  
ZURRUMURRUEN AURKAKO  
TALDEAK ANTOLATUA.  
DOAN


#KOMUNITATEA  
#KULTURARTEKOTASUNA



**19, domeka**  
18:00-20:00 - Faktorian  
ARTE HARTZE ZIKLOA/  
**ARTXIBO BILUZIA  
(METROKOA-  
DROKA)**  
+ FOREVER  
(MAITE  
AIZPURUA)  
+ PANPINA  
HAUTSIEN  
DANTZA  
(IDOIA HATXE)

ANTZERKIA & PIANOA  
SARRERA OROKORRA 10e/  
BAZKIDEAK 8e/  
IKASLE ETA LANGABETUEK 6e

#KULTURA  
#ARTEHARTZE



**22, eguaztena**  
17:00-19:00 - Faktorian  
**ATELIERRA**  
KUDEAKETA  
EMOZIONALA,  
KULTUR ERAGILEENTZAT  
DOAN

#KULTURA



**24, barikua**  
20:00 - Faktorian  
PLAZA EGUNA: ENTSEGU IREKIA/  
**URUNE**  
AITZOL IRAOLA  
DANTZA & ANTZERKIA & MUSIKA  
DOAN

#KULTURA  
#SORMENFAKTORIA



**30, eguena**  
**GREBA  
FEMINISTA  
OROKORRA**  
FAKTORIA ITXITA

#FEMINISMOA



**11, zapatua**  
11:00 - Faktorian

**JOSTAILU TRUKE AZOKA**  
#KOKORIKO #HEZKUNTZA



**18, zapatua**  
21:00 - Faktorian  
**IBIL BEDI  
& MATX**  
#MUSIKA



# elkarrizketa

## “Taldea izaera indartsua da dugun alderdirik positiboena”



**EUKENE ROIZO, ENARA IBERNIA, AROA BENGOETXEA ETA ELI GUTIERREZ** ALTZARRATEKO JOKALARIAK DIRA **IRUNE EGIGUREN** ENTRENATZAILEAREN ESANETARA. JOKATU BERRI DUTEN ARABAKO KOPAKO FINALAZ MINTZATU DIRA.



Testua eta argazkiak  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

**Larunbatean jokatu zenuten Arabako kopako finala. Penaltietan ebatzi zen norgehiagoka eta bigarren postuan geratu zarete. Nola baloratzen duzue jokatutako partida?**

*Eli Gutierrez:* Nire ustez partidua nahiko berdindua egon zen. Egia da momentu oro aurretik ibili ginela, baina denbora guztian gure atzetik gu heldu lortu zuten. Guk gola sartu eta haiek ere atzetik gola sartzen zuten, orduan denbora guztien ibili ginen berdintsu, naiz eta gu izan aurretik ibilitakoak. Laurogeita hamar minutuak berdinduta amaitu genituen. Horren ostean penaltietan, zoritxarrez, zortea dela medio, haien alde joan zen markadorea.

**Zergatik diozu zortearena?**

*E.G.:* Hain partida berdintsua egin ostean penaltietan beti pizten da urduritasuna. Porteria aurrean jarzteak beti jartzen zaitu urduri, gainera haizeak oso zakar jotzen zuen. Azkenean penaltietan 4-3 galdu genuen. Justu-justu ibili ginen baina zoritxarrez ez genuen lortu gure helburua.

**Urtebetean jokatzen duzuen bigarren kopa da hau. Aurreko txapelkunak izateak suposatu du zamaren bat?**

*Aroa Bengoetxea:* Aurreko kopa denboraldi amaieran jokatu genuen, oraingoa, aldiz, denboraldia hasi berritan jokatu dugu. Horrek eragin zuzena izan du, aurrekoan liga osoa jokatuta iritsi ginen kopara, ibilbide landuago batekin.

Guk *sprinta* denboraldi amaieran ematen dugu normalean, kopa lortu ez badugu espero dut denboraldiko fruituak liga amaieran ikustea.

*Eukene Roizo:* Nire ustez partida oso berdinduak izan dira gehienak, baina esango nuke oso ondo jokatu egin dugula. Irabazi ditugun partida guztiak merezita irabazi ditugu. Beti izan dugu helburu bezala irabaztea, eta beti aterara gara zelaira irabazteko konbikzioarekin.

*E.G.:* Nik uste talde moduan ere elkartasuna adierazi dugula momentu oro. Gure artean oso ondo ulertu dugu elkar. Bagaude berriak garen batzuk, eta denboraldia horrela hastea oso sentzazio ona da. Hemendik, Aroak esan duen moduan, gorantz joatea espero dugu.

**Kopa igarota ligan zentratzea izango da helburua. Nola hasi da txapelketa?**

*E.R.:* Liga irabazteko uste dut konstantzia handiagoa behar dugula. Horrek zailtasuna dakar; partida bat galtzen badugu *bajoi* handia da. Euskal Ligara igotzea da gure helburua.

*E.G.:* Nik uste dut daukagun alde positiboena dela talde izaera indartsua dugula. Kopako finalean argi geratu zen, gure talde izaerak markatu zuen diferentzia. Guk taldean jokatu genuen, Lakua Arriagakoen joko, ordea, askoz indibidualagoa zen. Uste dut talde izaera oso ondo barneratuta daukagula, eta hori lantzen jarraitzen badugu hemendik aurrerako bidea errazagoa izango dela.

**Aurreikusten duzue ligan arerio zuzenik?**

*A.B.:* Kopan bezala Lakua Arriaga izango da arerio nagusia. Gu baino nagusiagoak dira eta guk baino esperientzia gehiago daukate. Aurreko denboraldian Euskal Ligan jokatu zuten.

*E.G.:* Esperientzia nabari zaie baina talde modura gu indartsuagoak gara. Azken finean, jokalaria oso onak dituzte, baina oso talde indibidualista da. Talde-lanean gu ginetik gaude nire ustez.

*I.E.:* Nabaritzen da talde berria direla, hau da; talde desberdinetako jokalariek elkartu berri dituztela, *pegote* bat. Altzarrateko jokalaria askok sei urte daramate batera.

**Eta non dituzue hobetzekoak?**

*I.E.:* Atezain bat behar dugula (barreak). Orain arte hala moduz moldatu gara, txandakatuz edo B taldeko atezaina deituz. Bilatzen gaude eta etorriko da baten-bat froga egitera. Ez da gure arazoa soilik, orokorrean futboleko atezainak lortzea oso zaila da.

*E.G.:* Denboraldiaren hasiera da, hobetzeko gauza asko daude logikoa denez. Orokorrean joko hobetzeko asko geratzen da, baina denborak aurrera egin ahala gauzak hobetzen eta limatzen joango gara. Denboraren poderioa eta lana dira gakoa. Konstantzia eta taldearen gogoak.

**Zuetako batzuk urte asko dramazue Altzarrateko jolasten. Nola ikusi duzue taldearen bilakaera?**

*Enara Ibernía:* Ni hasi nintzenean jolasten ez zegoen ia emakumezkoen talderik. Oso gutxi ginen. Kategoria bakarra zegoen eta nik hamabi urterekin goiko taldean jolasten nuen, nire mailan jokatzerik ez nuelako; askotan hogeiterteko jokalarien aurka. Partida



## elkarrizketa

gehienak galtzen genituen, eta gol asko sartzen zizkiguten. Asko hobetu dugu eta talde indartsua osatu dugu. Orain aupegira begiratu ahal diegu gainerako taldeei.

*I.E.:* Nik hartu nituen lehenengo urtean, futbol hamaika jolasten hasi zirenean, partida guztiak galtzen genituen: 7-0, 8-0, 15-0... Apurka apurka joan da taldea definitzen, esperientzia hartzen eta orain, Enarak esan duen moduan, edozein talderi egin ahal diote aurre. Jokalariak berdinak izaten jarraitzen dute, eta hori nabaritzen da. Esango nuke garapen egokia daukatela, eta horrela jarraitzen badute gauza handiak lor ditzazkegula.

**Uste duzue ibilbide horrek balio izan duela eskualdean emakumezkoen futbola aldarrikatzeko?**

**“Gure jokoa hobetzeko asko geratzen da, baina denborak aurrera egin ahala gauzak fintzen eta limatzen joango gara”**

*E.I.:* Nire ustez bai, ni txikia nintzenean ez zegoen emakumezko talderik. Ni Amurrioko talde misto batean hasi nintzen, baina gero Bizkaiko talde batera jo behar izan nuen jolastera. Handik gutxira sortu zen Alzarrate, eta orduan bai izan nuen aukera futboleko jolasteko. Orain auekra gehiago daude, Amurrion Giltzarropok emakumezkoen taldea sortu berri du.

*I.E.:* Zenbakietan nabaritzen da ere emakumezkoen futbolaren hazkundera. Iaz lau talde genituen eta aurten sei. Denboraldia aspaldi hasi zen eta oraindik iristen dira izena eman nahi duten gazte berriak.

*E.G.:* Egia da ere, Alzarratek emakumezkoen futbolaren alde egiten duen lana beste taldeek ez dutela egiten. Ez diote dedikazio berdina eskaintzen. Ni

**“Emakumeen futbolak erreferenteak behar ditu jokalari gazteak erakartzeko”**

Aiaraldeko beste klub batetik nator eta baldintzak hemen askoz hobeak dira, nabarmen hobeak. Ithemen igartzen da aldaketa, nesken aldeko apustua eta gizarte parekideago bat lortzeko helburua. Beste klub askotan nesken taldea egote hutsagatik bakarrik dago, diru-laguntzen kontuengatik, ez benetan emakumezkoen kirolaren alde apustu egiteagatik.

*A.B.:* Ikusgarritasuna eman behar zaio emakumezkoen futbolari. Gazteek erreferenteak behar dituzte, eta, ikusgarritasunik ematen ez bazaio, ez dira jolastera animatuko.

*E.G.:* Guk ahalegina egiten dugu lotsak alde batera utzi eta esterotipoak apurtzeko, baina gurekin batera gizarteak ez badu aldaketa egiten, ezinezkoa da aurrera egitea, eta kirolerako hobekuntzak lortzea.



# argazki erreportajea

Gorobel ibilaldiaren XXXVII. edizioa antolatu zuen igandean Mendiko Lagunak taldeak. Aurreikuspen guztiak gaindituta, azken egunetako eguraldi zatarrak nolabaiteko tregoa eskaini zien Amurrion elkartutako milaka mendizaleei.

## Mila mendizale Gorobelen deiadarraren atzetik



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Mila mendizale baino gehiagok egin zuten bat azaroaren 5ean Amurrion, Mendiko Lagunak taldeak antolaturiko Gorobel Ibilaldiaren XXXVII. edizioan. Euriak eta haizeak markatutako aste baten ostean, eguraldiak nolabaiteko su-etena eskaini zien mendizaleei. Eguzkiak giroa epeldu bazuen ere, haize ufada bortitzei aurre egin behar izan zieten

parte hartzaileek han-hemenka, bereziki Menerdigako atakan.

Guztira mila berrehun kirolarik eman zuten izena martxan; iaz baino berrehun gehiago. Juan de Urrutia plazatik abiatzen lehenak 42 kilometroko ibilbidea osatu behar zuten kirolariak izan ziren. 7:00etan ekin zioten bideari. Menerdigatik igo ziren Garobelera eta Ungino, Eskutxi, Aro eta Urieta mendiak zeharkatu zituzten, besteak beste.

26 kilometroko ibilbide ertainak

batu zituen mendizale gehien. Bi ibilbideek Goizale aterpean egin zuten topo. Bertan salda eta otordu beroa prestatu zuten dozenaka boluntariok. Martxak Tologorri menditik eta Paso maloko atakatik jarraitu zuen itzulerako bidea. Eskualdeko mendizale gazteenek ere izan zuten Gorobel Ibilaldian parte hartzeko aukera. Goizeko 10:00etan, dozenaka familia abiatu ziren Babio mendiko gailurra konkistatzera.

**Argazkiak: Endika Larrazabal**





MENDIKO LAGUNAK


# MENDIJARDUNALDIAK

Azaroaren 17-26 AMURRIO

17 ostirala 19:00

Amurrio Antzokia

David Palmada, "Pelut" / "Black Hole"



25 larunbaia 19:00

Amurrio Antzokia

Silvia Vidal / "Sincronia Mágica"



24 ostirala 19:00

Amurrio Antzokia

Ana Salvador / "6000split"



26 igandea 19:00

Talavera egokitzen

G.E. Takomano / "Sistema Fuente Suso"



# kirola

ESKALADA

## Arrakasta handia izan du Haitzetan Gora Mendi Taldeak antolaturiko I. eskalada txapelketak



Haitzetan Gora Mendi Taldeak antolatuta Laudioko I. Eskalada Txapelketa egin zuten larunbatean. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Duela urtebete zabaldu zituen atea Laudioko rokodromoak, Haitzetan Gora Mendi Taldearen ekimenari esker. Larunbatean Laudioko I. txapelketa an-

tolatu zuten, eta azken hilabeteetako lanaren fruituak bildu zituzten.

Goizetik arratsaldera jendez lepo egon zen kirol instalazioa. Goizean haurren txapelketa antolatu zuten, sortzen ari diren

eskalada eskolaren erakusgarri. Arratsaldean, berriz, eskarmentua hartutako eskalatzaileen txanda izan zen. Parte hartzaileek maila-altuko txapelketa eskaini zieten bertaratutako ikusle guztiei.

FUTBOLA

## Oihan Mimenza Goikoetxeak positiboki baloratu du bere parte hartzea Euskal Selekzioan, bi gol egin eta gero

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Oihan Mimenza Goikoetxea pozik itzuli da Galiziatik eta modu positiboan baloratu du bere egonaldia Euskal Selekzioan. Espainiako hamalau urtetik azpiko Selekzioen Txapelketan aritu da eta lehenengo aldiz hautatua izan da deialdi ofizialean. Bere senideek adierazi dutenez, ondo abiatu du bere ibilbidea taldean.

Athletic Clubeko jokalaria ez da hasierako hamaikakoan egon, baina izan dituen minutuak ondo baliatu ditu. Hain zuzen, larunbatean Asturiaseko Selekzioaren kontra 60. minutuan atera zen futbol zelaia eta bi gol egin zituen. 5-1 irabazi zuten.

Atzo, igandean, 60. minutuan ere sartu zen zelaian eta bere taldea 3-1 gailendu zen Galiziaren kontra.

Bere familiako kideek Aiaraldea Komunikabideari azaldu diotenez, Luiaondoarra pozik dago ez bakarrik golak sartzeagatik, baita jokatu duela eta bere taldekideak hobeto ezagutzeko parada izan duela. Oro har, esperientzia polita izan da aiarrarentzat eta, horrez gain, larunbatean Balidos futbol estadioan egon ziren Celta de Vigo eta Sevilla FC taldeen arteko partida ikusten.

PILOTA

## Emakume Master Cup Txapelketako jardunaldi berdindua Okondon



Publikoa pozik joan zen ikuskizunarekin. **Emakume Master Cup**

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Lau eta Erdiko Emakumeen Master Cup iragarritakoa bete zuen eta dozena erdi partida oso parekatu eskaini zuen txapelketak Okondoko frontoian. Antolatzaileek gorai-patu dute herrian sortutako giroa eta kirolarien kalitatea eta emaitza estuak: "Maila desberdinetako sei partida jokatu dira eta erdiak bi tantoren aldearekin baino gu-

txiagorekin amaitu dira". Okondoko jardunaldiarekin ireki dute denboraldia eta asteburu honetan Gordexolan izango da hitzordua. Emaitzak honako hauek izan ziren: Edurne Carretero 8-Jone Merino 18; Jaione Fernandez 18-Malena Mena 16; Itxasne Lizarralde 18-Maria Crespo 17; Amaia Zarrabietia 8-Marta Gomez 18; Arrate Bergara 22-Olatz Beitia 14 eta Aizane Ibarrola 22-Leire Galeano 20.

**AIARABIKE**  
LAUDIO [aiarabike.com](http://aiarabike.com)



**40 TXIRRINDULA BAINO GEHIAGO LIKIDAZIOAN, %20TIK %40RA ARTEKO DESKONTUEKIN**

Zure bizikleta mantenurako denda eta tailer aditua



**INFO@AIARABIKE.COM 946 565 449**  
**GOIKOPLAZA 24, LAUDIO (EROSKI ALBOAN)**



# herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Azaroaren 22an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



## Ekhiñe

Zorionak pirata!  
Asko maite zaitut!

Miren



## Luken

Zorionak Luken!!! Maite zaitugun  
guztion partez. Segi zaren  
modukoa izaten!

Familia



**BIDALI  
ZURE  
ZORION  
AGURRA!**

## Denborapasak

ERRAZA

	2					8		
			5		2	7		3
	5			6		4		
		4					3	6
5	7	8					9	
6	9			2	8		4	
8					7	2		
			2		3	6	5	
	6					3		

ZAILA

	3		7					6
4					9		8	3
	7			2	3			5
6			4					
	5				2	6		7
		4	3		5			
	6		8		4	5	3	
		3	2	5				
5	4			3	7			9

**DENBORAPASEN SOLUZIOAK** Sudoku, hitz-gurutatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

## Zozketa



**Matx eta Ibil Bedi  
Faktorian ikusteko sarrera  
bikoitza zozkatuko du  
Aiaraldea Komunikabideak**

Azaroaren 18ko Matx eta Ibil Bediren kontzertua ikusteko sarrera bikoitz baten zozketa  
Parte hartzeko sartu [www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus) atarian **Zozketaren data:** Azaroak 17, 12:00etan.

# KOKO RIKO

## IRAKURKETA GUNEA

### ONIN ETA KOMIKI MADARIKATUA

**Idazlea:** Ibon Martin

**Ilustratzailea:** Emmanuel Montiel

**Adin tartea:** 6-12 urte

**Argitaletxea:** Travel Bug

Azoka japoniarrera egin dugun bisita amesgaizto bilakatu zaigu.

Sugandila errugabe batek, saltsa kutsatu batek eta asmakuntza zoro batek giltzapetuta utzi gaituzte komiki baten orrialdeetan, eta badirudi ezinezkoa dela ihes egitea.



### IZAKI BIZIDUNEN LIBURU HANDIA

**Idazlea:** Pascale Hedelin

**Ilustratzailea:** Didier Balicevic

**Adin tartea:** 5-8 urte

**Argitaletxea:** Ttartalo

Bizitza nonahi dago gure planetan, eta izaki bizidun guztiok elkarri lotuta gaudela! Zabaldu liburuxka, eta igelkumea hasi egingo da, arrautzatik helduarora iritsi arte. Altxatu leihatila, zuhaitzak elkarren artean nola komunikatzen diren ikusiko duzu.



## JOLAS GUNEA

### BALOIAREKIN KORRIKA

#### PARTAIDE KOPURUA:

Gutxienez lau (hobe gehiago)

#### AZALPENA

1. Erdian nor geratuko den zozketatu ondoren, jokalaria guztiak biribilean jarriko dira. Erdiko laguna eserita egongo da eta biribilekoak, berriz, zutik.

2. Baloia eskuz esku pasatzen hasiko dira erdiko jokalaria, begiak itxita dituelarik, hogeitik behera zenbatzen duen bitartean (20, 19, 18...). Zenbaketa isilean egingo du, biribileko jokalariek ez entzuteko moduan.

Hamarrera iristerakoan beso bat luzatuko du "KO" ozenki esanez, eta hortik behera zenbatzen jarraituko du (9, 8, 7...). Bostera iristerakoan, beste besoa luzatuko du "RRI" ozenki esanez eta, azkenik, zerora iritsi bezain pronto bi besoak buru gainean jarriko ditu eta txalo eginez "KA" oihukatuko du. "KA" esan duen unean baloia zuen biribileko jokalaria lurra eserita beharko du, hankak luzatuta.

3. Jolasa errepikatuko da pixkanaka-pixkanaka biribileko jokalaria guztiak eserita gelditu arte. Oso garrantzitsua da baloia eskutik eskura pasa behar dela ohartaraztea, hau da, ezin dela baloia bota. Beraz, biribileko bi langunen artean norbait eserita badago, honen hankaren gainetik salto egin behar da baloia hurrengo jokalaria eskura emateko.

Oso talde handiak baditugu bi baloi erabil daitezke. Honela ez da jolasa gehiagi luzatuko eta biribilekoek ez dute hainbeste itxaron beharko baloia beren eskuetara heltzeko.



### OIER FERNANDEZ CARRASCO

HEZITZAILEA

#### *Nahikoak al dira egurrezko regletak eta Waldorf ostadarrak?*

Azkenaldian asko eta oso zabal hitz egin da, eta egiten ari da, haurren eta sormenaren arteko loturaz. Haurrak sormenarekin eduki behar duen loturaz, harremanaz edota kontaktuaz.

Baina prest al dago hezkuntza sistema haurrak sormenarekin zein sorkuntzarekin izan behar duen harremana ziurtatzeko? Hiru urteko haur bat orri zuri baten haurrean jartzean gauzak gertatzen dira, beti gertatuko dira gauzak, haurrak beti sortuko du.

Hemen ere begirada zabaltzen gaudela esango nuke, jada ez baitiogulako sorkuntza plastikoari soilik arreta jartzen. Haurren eta orri zuriaren artean sortzen den hori ere sorkuntza bat da. Sortzen delako, horregatik da sorkuntza. Mugimendua, begirada, tolesdura...

Atzean uzi ditugu San Martin egunaren arira egiten genituen txerrikoen kareta, komuneko paperaren tutuarekin egiten genituen tximeletak edota ikasturte amaierarako emanaldirako plastikozko mozturroak...


Ikasturte amaierako emanaldiak, bai. Denok gogoratzen ditugu. Eta nola dira gaur egungo ikastetxeetan? Haurren ikaskuntza prozesuan erritmo guztiak errespetatzen dituzten ikastetxeetan, haur bakoitzaren interesetara moldatzen diren ikastetxeetan... Emanaldia heldu eta berdina dio erritmoak, berdina dio interesak. Ni arbola2 izango naiz eta plastikozko panpintxo baten moduan andereñoek eszenatokian kokatuko nau. Hura ordea, ardia6 izango da. Andereñoek erakutsi dizkion mugimenduak kopiaturiko ditu oholtzaren alde batetik bestera.

Non geratzen da haurren eta sorkuntzaren arteko harreman hain beharrezko hori gaur egungo hezkuntzan? Sorkuntza libre eta segurua zihurtatzeko, nahikoak al dira egurrezko regletak eta Waldorf ostadarrak? Agian bai, baina nahikoa al da materialak aldatzea aspalditik errotuta ditugun ohiturak aldatzen ez baditugu? Agian ez.



**Margotu** Azaroa urteko hamaikagarren hilabetea da, kuien eta onddoen garaia. Goian idatzita dago, baina kolore apur bat merezi du, ezta? Bada, eman izeaiozu!

**HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA**



**Mezu gordea**

Eman marrazkitxo bakoitzari bere hizkia eta esaera zahar bat agertuko zaizu. Erabili alboko hizki-marrazki alfabetoa.



**ALdea dago** Aurki itzazu bi irudien arteko hamar aldeak.



**Handienetik txikienera**

**SOLUZIOAK**



Ordenatu jertse hauek handienetik txikienera. Eman handienari 1 zenbakia, eta txikieneri 9.



# Kontra

## Mundutik Aiaraldera



### El Mokhtar Arakraki

JAIOTERRIA  
MAROKO (1967)

BIZILEKUA  
LAUDIO

BIDAIAREN XEDEA  
**BERE BIKOTEA JATORRI MAROKOARREKO LAUDIOARRA DA, ETA BERAREKIN EZKONDU OSTEAN ETORRI ZEN**

### MAROKO



#### DESKRIBAPENA

Maroko 1956. urtean independizatu zen Frantzia eta Espainiatik, eta bost urtera izendatu zuen Hassan IIak bere burua errege. Gaur egun herrialdea monarkia konstituzionala da. 2011n onartu zuten egun indarrean dagoen konstituzioa, 1996tik zegoena ordezkaturik.

#### AZALERA

446.550 kilometro koadro.

#### BIZTANLEAK

37,07 milioi biztanle.

#### HIZKUNTZAK

Arabiera eta berberera dira bi hizkuntza ofizialak, baina beste hainbat hizkuntza ere hitz egiten dira.

#### Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak  
Tirada: 10.000 ale.  
Maiztasuna: Hamabostekaria  
Lege gordailua: BI-1230-2013  
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus erredakzioa@aiaraldea.eus  
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus  
Tifnoa: 688 62 53 94  
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilloia, Laudio, Araba. 01400  
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00  
Web-gunea: www.aiaraldea.eus  
**ERREDAKZIO OHARRA:** Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

#### ESKER BEREZIAK BANATZAILA BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Iraia Pereiro, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzan Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto Gutierrez, Eunate Ekhiñe

## “Oso zaila zen Marokon kazetari moduan lan egitea, jendeak beldurra zuen”

Urte asko daramatzu Laudion bizitzen, baina Marokokoa zara jatorriz. Non jaio eta hazi zinen zehazki?

Elkarrizketa hasi baino lehen, nabarmendu nahi dut oso triste nagoela munduan gertatzen ari denagatik. Israelek mundua bere eskuetan hartu du, eta Gazako herri osoa hiltzen ari da.

Zure galderari erantzunez, Beni Bu Frah izeneko udalerrit batean jaio eta hazi nintzen, Alhucemas pronbintzian, Marokoko iparraldean kokokatuta dago, Tanger eta Nador hirien artean. Ibai handi bat igarotzen da nire herritik, eta baratza zeuden alde batean zein bestean. Nekazaritzatik bizi ginen, baina Batxilergoa ikastera hiri handiago batera joan nintzen, Targuistera.

Ondoren, filologia arabiarrean lizentziatu nintzen, 1992. urtean, Sidi Mohamed Ben Abdellah Faz Unibertsitatean. Oso unibertsita-

te handia zen, Marokoko hegoaldeko, erdialdeko eta iparraldeko ikasleak biltzen ziren bertan. Bertara iritsi nintzen garaian zientziatiko fakultatea hiriko beste toki batera mugitu zuten. Garai mugituak ziren. Manifestazio asko zeuden Estatu Batuen eta Iraken arteko gerraren ondorioz. Mobilizazioak egiten genituen hiriraino, eta estatuak ez zuen hori nahi. Horregatik erabaki zuten ikasleak sakabanatzea.

#### Nolako zen garai hartako ikasle mugimendua?

Kurtso bakoitzak bere komitea osatzen zuen, eta asteroko bilerak egiten ziren guztiak koordinatzeko. Mugimendua zegoen beti. Baina Hassan II erregeak ikasleak banatzea lortu zuen. UNEM erakundea zegoen alde batetik (Marokoko Ikasleen Batasun Nazionala), eta mugimendua islamiarra bestetik.

Ikasketak amaitzean kazetari moduan lan egiten hasi zinen. Zaila zen kazetari moduan lan egitea Marokon 1990ko hamarkadan?

Askok, egia esan. Jendeak beldurra zuen. Adibidez, sindikatu bati elkarrizketa egitera zindozenean zutaz beldur ziren, ez zituzten informazioa eman nahi. Borroka etengabea zegoen kazetarien artean, informazioa lehena nork lortuko. Ez bazenuen harremanik instituzioetako arduradunekin ez zituzten informazioa eman.

Beti zeuden arazoak. Behin, ikasle langabetuen talde batek manifestazio bat egin zuen gure erredakzioaren parean, gobernuaren ordezkariaren aurrean. Errepidea blokeatu zuten, polizia agertu zen eta kolpatu egin zituzten. Informazioa argitaratu genuen argazkietekin, eta egunkaria dendetatik kendu behar izan


genuen gero. Ez dakit zer gertatu zen zehazki, baina zuzendariak esan zigun kentzeko, segurtasun arrazoiengatik.

Beste esperientzia bat ere oirizten dut, eskola batean jazotakoa. Harresi bat zegoen hilabeteak zaramatzana eraitsita. Irudi ugari hartu nituen eta bertako Batxilergoko hainbat ikasle elkarrizketatu nituen. Esan zidaten ez zutela zerbitzurik, leihoak apurtuta zeudena, ez zutela idazmaharrik... nik dena argitaratu nuen eta hezkuntza delegaritzak artikulua ikusi zuen eta dendetatik erretiratu zuten, eta deia jaso nuen. Kartzelara joateko beldur izan nintzen.

Bertan, kolpatzen zintuzten edo, kasu batzuetan, kartzelara edota hil ere bai. Ez zegoen segurtasun askorik, oso konplikatu zen.

**Elkarrizketa osoa Aiaraldea.eus atarian ikusgai.**

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



araba álava  
foru aldundia diputación foral



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA